$$\vec{F} = \int_b^{b+L} \vec{E} \cdot \lambda \, dl = \lambda \int_b^{b+L} \frac{1}{4\pi\varepsilon_0} \frac{Q}{r^2} dr \, \hat{u}_r = \frac{\lambda Q}{4\pi\varepsilon_0} \left[-\frac{1}{r} \right]_L^{b+L} \hat{u}_r =$$

$$= \frac{Q\lambda}{4\pi\varepsilon_0} \left[\frac{1}{L} - \frac{1}{b+L} \right] \hat{u}_r = \frac{\lambda Q b}{4\pi\varepsilon_0 L (b+L)} \hat{u}_r$$

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Saila
Dpto. de Física Teórica e Historia de la Ciencia

Elektromagnetismoa I — Dielektrikoak 2: Kondentsadoreak

1. Lurra kondentsadore esferikotzat har ezazu, eta jo ezazu eremu elektrikoa atmosferan soilik dagoela. Lurraren erradioa 6.37×10^6 m eta atmosferaren lodiera 5×10^4 m (ionosferaren altuera, hain zuzen ere) direla onartuz, kalkula ezazu eremu elektrikoan metatutako energia eguraldi oneko egun batean, non eremu elektrikoa ≈ 100 V/m den.

2. S azalerako eta d lodierako kondentsadore lau baten xaflen artean dielektrikoa dugu. Dielektrikoaren konstantea linealki handitzen da ϵ_1 baliotik ϵ_2 balioraino. Kalkula ezazu kondentsadorearen kapazitatea eta polarizazio kargen banaketa.

3. A azalerako bi xafla metaliko d distantziaz aldenduak dira. Xaflen artean ϵ permitibitateko dielektrikoa dugu. Xafla bat Q kargaz hornitu dugu; bestea, berriz, lurrari lotzen zaio, *(a)* irudian agertzen den moduan. a) Zer dira eremu elektrikoaren eta polarizazioaren balioak dielektrikoan? b) Kalkula ezazu xaflen arteko potentzial diferentzia. c) Lurrarekiko lotura apurtu dugu orain, eta bigarren xafla $Q/2$ kargaz hornitua geratu da. Zenbatekoa da orain xaflen arteko potentzial diferentzia? (*Iradokizuna:* erabili ohiko hurbilketak.)



(a) (b)

4. Kondentsadore lau baten kapazitatea 22.5 pF dela neurtu da experimentalki. Jo ezazu xaflen arteko distantzia 1.5 cm dela eta tentsioa 1.8×10^3 V dela. Ertzetako efektuak baztertuz, eta hurbilketa egokiak kontsideratuz, kondentsadoretik kanpo eta oso urrun dauden puntuetako potentzialak zenbatetsi nahi dugu. Hain zuzen ere, irudiko P_1 eta P_2 puntuetan, zentrutik 3 m aldenduak.



5. Bitez a eta d erradioko esfera eroale zentrukideak ($a < d$). $a < r < b$ dielektrikoak inguratzen du barruko esfera. Dielektriko honen permitibitate erlatiboa ϵ_{r1} dugu. $b < r < c$ tartean hutsa dugu. Hurrengo geruza esferikoa, $c < r < d$ erradioetan, dielektrikoz beteta dago, ϵ_{r2} permitibitate erlatiboarekin. Barne esferaren potentziala V da, eta kanpokoa lurrari lotuta dago. Kalkula itzazu karga aske osoak barne eta kanpo esferetan, eremu elektrikoa espazioko alde guztietan, eta polarizazio karga banaketa guztiak.



6. a erradioko esfera eroaleak q karga darama. Horren zentrukide b erradioko geruza eroalearen lodiera arbuiagarria da. Kalkula ezazu sistemaren energia elektrostatikoa ondoko kasu bietan: a) kanpo geruzak ez du kargarik; b) kanpo geruza lurrari lotuta dago.

7. A eta B xafla eroaleak $2d$ distantziaz aldenduak dira, eta potentzial berean mantentzen ditugu. Euren artean bi geruza dielektrikok betetzen dute espazio osoa. Lehena, A xafla ukitzen duena, ϵ_r permitibitate erlatibokoa da eta d lodierakoa. Bigarrenak ere d lodiera du, eta permitibitate bera. Hori bai, ρ bolumeneko karga dentsitate konstantea aurkezten du. Kalkula itzazu gainazaleko karga dentsitateak, ohiko hurbilketekin.



8. Kondentsadore aldakor diferentzialean bi kondentsadore aldakor agertzen dira, baten kapazitatearen balio aldaketa besteak hartuz. Irudiko goiko eta beheko xaflak finko daude; tartekoa, beste aldetik, higi daiteke xafleen planoarekiko perpendikularki. Xaflen azalera A dugu; ohi bezala xaflen luzerak xaflen arteko distantziak baino askoz handiagoak dira. Demagun xafla zentrala zentrutik x distantzia aldendu dugu. Zenbatekoak dira C_1eta C_2 kapazitateak? Sistema osoari Vtentsia aplikatuz gero, zein da $V_1 - V_2$ diferentzia? Kalkula ezazu sistemaren energia elektrostatikoa.



1. ARIKETA



$$U = \frac{1}{2}\int_V \vec{D}\cdot\vec{E}\, dV$$

Atmosfera dielektriko linealtzat hartuz:

$$\vec{D} = \varepsilon_0 \vec{E} \Rightarrow U = \frac{1}{2}\int_V \varepsilon_0 E^2 dV$$

$$U = \frac{\varepsilon_0 E^2}{2}\int_V dV = \frac{\varepsilon_0 E^2}{2}\int_{R_i}^{R_{atm}} 4\pi r^2 dr = 2\pi\varepsilon_0 E^2 \left[\frac{r^3}{3}\right]_{R_i}^{R_{atm}}$$

$$U = \frac{2}{3}\pi\varepsilon_0 E^2 (R_{atm}^3 - R_i^3)$$

2. ARIKETA





$$\varepsilon(x) = \varepsilon_1 + \frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{d}x$$

- Lehenengo $\vec{D}$ kalkulatuko dugu: $\vec{D}(\vec{r}) = D(x)\,\hat{u}_x$

$$\oint_S \vec{D}\cdot d\vec{S} = Q_{int} \Rightarrow D\,S = Q \Rightarrow D = \sigma$$

- Dielektrikoa linealtzat hartuz, $\vec{E}$ kalkulatuko dugu:

$$\vec{D} = \varepsilon\vec{E} \Rightarrow \vec{E} = \vec{D}/\varepsilon \quad (\vec{E}(\vec{r}) = E(x)\,\hat{u}_x)$$

$$\vec{E} = \frac{\sigma}{\frac{\varepsilon_2 - \varepsilon_1}{d}x + \varepsilon_1}\,\hat{u}_x$$

- Hemendik ΔV kalkulatuko dugu:

$$\int_{\phi(0)}^{\phi(d)} d\phi = -\int_0^d \vec{E}\cdot \overset{\overset{\vec{dr}=dx\,\hat{u}_x}{\uparrow}}{\vec{dr}} = -\int_0^d \frac{\sigma}{\frac{\varepsilon_2-\varepsilon_1}{d}x+\varepsilon_1}\,dx = \sigma\left[\frac{d}{\varepsilon_2-\varepsilon_1}\ln\left(\frac{\varepsilon_2-\varepsilon_1}{d}x+\varepsilon_1\right)\right]_d^0 =$$

$$= \frac{\sigma d}{\varepsilon_2-\varepsilon_1}\left(\ln\varepsilon_1 - \ln\varepsilon_2\right) = \frac{\sigma d}{\varepsilon_2-\varepsilon_1}\ln\left(\frac{\varepsilon_1}{\varepsilon_2}\right) = \Delta\phi$$

- Azkenik, kapazitatearen adierazpena lortuko dugu:

$$C = \frac{Q}{\Delta V} = \frac{\cancel{\sigma}\cdot S}{\frac{\cancel{\sigma} d}{\varepsilon_2-\varepsilon_1}\ln\left(\varepsilon_1/\varepsilon_2\right)} \Rightarrow C = \frac{(\varepsilon_2-\varepsilon_1)S}{d\ln(\varepsilon_2/\varepsilon_1)}$$

→ Polarizazio-kargak kalkulatzeko $\vec{P}$-ren adierazpena behar dugu:

$$\vec{D} = \varepsilon_0\vec{E}+\vec{P} \Rightarrow \vec{P} = \vec{D}-\varepsilon_0\vec{E} \Rightarrow \vec{P}(\vec{r}) = P(x)\,\hat{u}_x$$

$$\vec{P} = \sigma\left(1-\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon(x)}\right)\hat{u}_x$$



$\vec{n}_1 = -\hat{u}_x \qquad \vec{n}_2 = \hat{u}_x$

$$\sigma_1 = \vec{n}_1\cdot\vec{P}(0) = -\hat{u}_x\cdot\sigma\left(1-\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon_1}\right)\hat{u}_x = \sigma\left(\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon_1}-1\right)$$

$$\sigma_2 = \vec{n}_2\cdot\vec{P}(d) = \hat{u}_x\cdot\sigma\left(1-\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon_2}\right)\hat{u}_x = \sigma\left(1-\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon_2}\right)$$

$$\rho_p = -\nabla\cdot\vec{P} = -\frac{\partial P}{\partial x} = -\frac{\partial}{\partial x}\left(\sigma-\sigma\frac{\varepsilon_0}{\varepsilon_1+\frac{\varepsilon_2-\varepsilon_1}{d}x}\right) =$$

$$= \sigma\varepsilon_0\left[\left(\varepsilon_1+\frac{\varepsilon_2-\varepsilon_1}{d}x\right)^{-1}\right]' = -\frac{\sigma\varepsilon_0(\varepsilon_2-\varepsilon_1)}{d}\frac{1}{\left(\varepsilon_1+\frac{\varepsilon_2-\varepsilon_1}{d}x\right)^2}$$

4. ARIKETA



$\Delta V = 1'3 \cdot 10^3\,V$

kondentsadorean, hurbilketak onartuz:

$\Delta V = E \cdot d \Rightarrow E = 8'67 \cdot 10^4\,V/m$

Bestalde $\Rightarrow$ $C = \dfrac{Q}{V} \Rightarrow Q = 2'925 \cdot 10^{-8}\,C$

Bi plaken artean: $E = \dfrac{\sigma}{\varepsilon_0} = \dfrac{Q/S}{\varepsilon_0} \Rightarrow S = \dfrac{Q}{E \cdot \varepsilon_0} = 3'81 \cdot 10^{-3}\,m^2$

5. ARIKETA



$$\varepsilon_{r_1} = \frac{\varepsilon_1}{\varepsilon_0} \Rightarrow \varepsilon_1 = \varepsilon_{r_1} \cdot \varepsilon_0$$

$$\varepsilon_{r_2} = \frac{\varepsilon_2}{\varepsilon_0} \Rightarrow \varepsilon_2 = \varepsilon_{r_2} \cdot \varepsilon_0$$

Simetriagatik, $\vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r$

Kanpoko gartza lurreratuta $\Rightarrow$ kanpotik $Q=0 \Rightarrow Q_d = -Q_a$

Barrukoaren karga kalkulatzeko, sistemaren potentziala kalkulatzen joango gara.

- $c < r < d$:

Barruko karga = Q

$$\oint_S \vec{E}\cdot d\vec{s} = \frac{Q_{ins}}{\varepsilon_2} = \frac{Q}{\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0} \Rightarrow E\cdot 4\pi r^2 = \frac{Q}{\varepsilon_{r_2}\cdot\varepsilon_0} \Rightarrow E(r) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0 r^2}$$

$d\vec{r} = dr\,\hat{u}_r$

$$\oint_{\phi(d)}^{\phi(c)} d\phi = -\int_d^c \vec{E}\cdot d\vec{r} = -\int_d^c \frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0 r^2}\,dr = -\frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_d^c = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0}\left(\frac{1}{c}-\frac{1}{d}\right)$$

$$\phi(d) = 0 \longrightarrow \phi(c) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_2}\varepsilon_0}\left(\frac{1}{c}-\frac{1}{d}\right)$$

- $b < r < c$:

$$\oint_S \vec{E}\cdot d\vec{s} = \frac{Q_{ins}}{\varepsilon_0} \Rightarrow E\cdot 4\pi r^2 = \frac{Q}{\varepsilon_0} \Rightarrow E(r) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}$$

$$\oint_{\phi(c)}^{\phi(b)} d\phi = -\int_c^b \vec{E}\cdot d\vec{r} = -\int_c^b \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\,dr = -\frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left[\frac{1}{r}\right]_c^b = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{b}-\frac{1}{c}\right)$$

$$\phi(b) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0 \varepsilon_{r_2}}\left(\frac{1}{c}-\frac{1}{d}\right) + \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{b}-\frac{1}{c}\right)$$

$$\phi(b) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{b} - \frac{1}{\varepsilon_{r_2} d} + \frac{1-\varepsilon_{r_2}}{\varepsilon_{r_2}\cdot c}\right)$$

- $a<r<b$:

$$\oint_S \vec{E}\cdot d\vec{s} = \frac{Q_{inc}}{\varepsilon_1} = \frac{Q}{\varepsilon_{r_1}\varepsilon_0} \Rightarrow E = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_1} r^2}$$

$$\int_{\phi(b)}^{\phi(a)} d\phi = -\int_b^a \vec{E}\cdot d\vec{r} = -\int_b^a \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_1} r^2}\,dr = \frac{-Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_r}\left[-\frac{1}{r}\right]_b^a = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_1}}\left(\frac{1}{a}-\frac{1}{b}\right)$$

$$\phi(a) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_1}}\left(\frac{1}{a}-\frac{1}{b}\right) + \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{b} - \frac{1}{\varepsilon_{r_2} d} + \frac{1-\varepsilon_{r_2}}{\varepsilon_{r_2} c}\right)$$

$$\phi(a) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{a} - \frac{1}{\varepsilon_{r_2}\cdot d} + \frac{\varepsilon_{r_1}-1}{\varepsilon_{r_1}\cdot b} + \frac{1-\varepsilon_{r_2}}{\varepsilon_{r_2}\cdot c}\right) = V$$

$$\boxed{Q_a = \frac{4\pi\varepsilon_0\cdot V}{\frac{1}{a} - \frac{1}{\varepsilon_{r_1}\cdot d} + \frac{\varepsilon_{r_1}-1}{\varepsilon_{r_1}\cdot b} + \frac{1-\varepsilon_{r_2}}{\varepsilon_{r_2}\cdot c}}}$$

Eta, esan dugunez, $Q_d = -Q_a$:

$$\boxed{Q_d = \frac{-4\pi\varepsilon_0 V}{\frac{1}{a} - \frac{1}{\varepsilon_{r_1}\cdot d} + \frac{\varepsilon_{r_1}-1}{\varepsilon_{r_1}\cdot b} + \frac{1-\varepsilon_{r_2}}{\varepsilon_{r_2}\cdot c}}}.$$

$$\vec{E}(r) = \begin{cases} \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_1} r^2}\hat{u}_r, & a<r<b \\[2ex] \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\hat{u}_r, & b<r<c \\[2ex] \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon_0\varepsilon_{r_2} r^2}\hat{u}_r, & c<r<d \\[2ex] 0\,\hat{u}_r, & \text{bestela} \end{cases}$$

Polarizazio-kargak kalkulatzeko, lehenengo $\vec{D}$ kalkulatuko. Simetria esferikoa dugunez, $\vec{D}(\vec{r}) = D(r)\,\hat{u}_r$

- $a<r<d$:

$$\oint_S \vec{D}\cdot d\vec{S} = Q_{barne} = Q \Rightarrow D(r)\cdot 4\pi r^2 = Q \Rightarrow D(r) = \frac{Q}{4\pi r^2}$$

- Bestela:

$$\oint_S \vec{D}\cdot d\vec{S} = Q = 0 \Rightarrow D(r) = 0 \qquad \vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{Q}{4\pi r^2}\hat{u}_r, & a<r<d \\[2ex] 0\,\hat{u}_r, & \text{bestela.} \end{cases}$$

Orain $\vec{P}$ kalkulatuko dugu:

$$\vec{D} = \varepsilon_0\vec{E} + \vec{P} \Rightarrow \vec{P} = \vec{D} - \varepsilon_0\vec{E} \qquad (\vec{P}(\vec{r}) = P(r)\,\hat{u}_r)$$

- $a<r<b$:

$$\vec{D} - \varepsilon_0\vec{E} = \frac{Q}{4\pi r^2}\hat{u}_r - \frac{Q}{4\pi\varepsilon_{r_1} r^2}\hat{u}_r = \frac{Q}{4\pi r^2}\left(1 - \frac{1}{\varepsilon_{r_1}}\right)\hat{u}_r = \frac{Q(\varepsilon_{r_1}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_1} r^2}\hat{u}_r$$

- $c<r<d$:

Berdina baina ε_{r_2}-rekin

$$\vec{P}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{Q(\varepsilon_{r_1}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_1}\cdot r^2}\,\hat{u}_r, & a<r<b \\ \dfrac{Q(\varepsilon_{r_2}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_2} r^2}\,\hat{u}_r, & c<r<b \\ 0\,\hat{u}_r, & \text{Bestela.} \end{cases}$$

* Polarizatio-kargak kalkulatuko ditugu lehenengo dielektrikoan:

$$\rho_P = -\nabla\cdot\vec{P} = -\frac{1}{r^2}\frac{\partial}{\partial r}\left(r^2\cdot\frac{Q(\varepsilon_{r_1}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_1}\cdot r^2}\right) = 0$$



$$\sigma_a = \vec{n}_a\cdot\vec{P}(a) = -\frac{Q(\varepsilon_{r_1}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_1}\cdot a^2}$$

$$\sigma_b = \vec{n}_b\cdot\vec{P}(b) = \frac{Q(\varepsilon_{r_1}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_1} b^2}$$

$\vec{n}_a = -\hat{u}_r$

$\hat{n}_b = \hat{u}_r$

* Polarizatio-kargak kalkulatuko ditugu bigarren dielektrikoan:

$$\rho_P = -\nabla\cdot\vec{P} = -\frac{1}{r^2}\frac{\partial}{\partial r}\left(\cancel{r^2}\cdot\frac{Q(\varepsilon_{r_2}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_2}\cdot \cancel{r^2}}\right) = 0$$



$$\sigma_c = \vec{n}_c\cdot\vec{P}(c) = -\frac{Q(\varepsilon_{r_2}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_2} c^2}$$

$$\sigma_d = \vec{n}_d\cdot\vec{P}(d) = \frac{Q(\varepsilon_{r_2}-1)}{4\pi\varepsilon_{r_2} d^2}$$

$\vec{n}_c = -\hat{u}_r$

$\vec{n}_d = \hat{u}_r$

6. ARIKETA

a) Geruzak ez du kargarik:

kasu honetan soilik esfera kargatua dugu.

$$\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\hat{u}_r, & r>a \\ 0\hat{u}_r, & r<a \end{cases} \qquad \vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{q}{4\pi r^2}\hat{u}_r, & r>a \\ 0\hat{u}_r, & r<a \end{cases}$$

$$U = \frac{1}{2}\int_V \vec{D}\cdot\vec{E}\,dv = \frac{1}{2}\int_0^\infty D\hat{u}_r\cdot E\hat{u}_r\,.\,4\pi r^2 dr = \frac{1}{2}\int_a^\infty \frac{q}{\cancel{4\pi r^2}}\cdot\frac{q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\cancel{4\pi r^2}dr =$$

$$= \frac{q^2}{8\pi\varepsilon_0}\int_a^\infty \frac{dr}{r^2} = \frac{q^2}{8\pi\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_a^\infty = \frac{q^2}{8\pi\varepsilon_0 a}$$

b) Geruza lurreratuta dago:



kanpoko geruza lurreratuta dagoenean, $\vec{E}$ soilik a eta b tartean egongo da.

$$\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\hat{u}_r, & a<r<b \\ 0\hat{u}_r, & \text{bestela} \end{cases} \qquad \vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{q}{4\pi r^2}\hat{u}_r, & a<r<b \\ 0\hat{u}_r, & \text{bestela} \end{cases}$$

$$U = \frac{1}{2}\int_V \vec{D}\cdot\vec{E}\,dv = \frac{1}{2}\int_a^b \frac{q}{\cancel{4\pi r^2}}\cdot\frac{q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\cancel{4\pi r^2}dr = \frac{q^2}{8\pi\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_a^b =$$

$$= \frac{q^2}{8\pi\varepsilon_0}\left(\frac{1}{a}-\frac{1}{b}\right)$$

Kargaren higiduraren gatik ematen den fenomenoa

$dQ(t) = \rho(\vec{r}, t) \cdot dV \rightarrow \frac{\partial \rho}{\partial t} \neq 0$ karga-dentsitatea aldatu dea denborarekin.

Higidura eremu-elektrikoaren ondorioz ematen da.

karga KONTSERBATU egiten da.

$d\vec{S} = dS\,\hat{n}$ zenbat karga pasatzen da dS-tik denbora-unitateko ?

dt tartean, zenbat karga pasatu da dS-tik?

↳  bolumenean dagoen karga, non $h = v\,dt$

$dq = \rho \cdot \vec{v} \cdot d\vec{S} \cdot dt$

Orain demagun S gainazal finitua:

$$dq(S) = \int d\vec{S}\,(\rho\cdot\vec{v})\cdot dt$$

$$\boxed{\vec{j} = \rho\cdot\vec{v}} \rightarrow \vec{j}(\vec{r},t) = \rho(\vec{r},t)\cdot\vec{v}(\vec{r},t)$$

Berez, funtsezkoagoa da $\vec{j}$ $\vec{v}$ baino, eta askotan $\vec{v}$ $\vec{j}$-tik ondorioztatzen dugu.

$$\boxed{\int_S d\vec{S}\ \vec{j} = I(S)}$$ ← Intentsitatea korronte-dentsitatearen FLUXUA da.

$$dQ_V(t) \overset{①}{=} -\left(\int_{\partial V} d\vec{S}\cdot\vec{j}\right) dt$$

$$Q_V(t) = \int_V d^3\vec{r}\ \rho(\vec{r},t)$$

$$\overset{②}{=} \int_V d^3\vec{r}\ \partial_t\rho(\vec{r},t)\cdot dt$$

$$\Rightarrow \boxed{-\int_{\partial V} d\vec{S}\cdot\vec{j} = \int_V d^3\vec{r}\cdot\dot{\rho}}$$ Jarraitutasunaren formula forma integralean

Dibergentziaren teorema $\Rightarrow \int_{\partial V} d\vec{S}\cdot\vec{j} = \int_V d^3\vec{r}\cdot\nabla\cdot\vec{j}$

$$\Rightarrow \quad 0 = \int_V d^3\vec{r}\,(\partial_t \rho + \nabla\cdot\vec{j})$$

$$\Downarrow$$

$$\boxed{\partial_t \rho + \nabla\cdot\vec{j} = 0}$$

↳ ADIBIDEA:



Zein da x puntuan S(x) sekziotik pasatzen den fluxua?

$$\int_{S(x)} \vec{j}\cdot d\vec{s} = I(x)$$

- OHM: EKUAZIO ERAIKITZAILEA

Zergatik agertzen da korronte dentsitatea:

* Noizbait zerbait hasten da mugitzen, eta inertziagatik jarraitzen dute.

* Indarrak daudelako
$\vec{E}$ da indar nagusia, baina mikroskopikoki beste indarrak ager daiteke.

$$\vec{j} = g\cdot\vec{E} \qquad \text{OHMen LEGEA}$$
$$= \sigma\cdot\vec{E}$$

↳ Eroankortasuna

$g^{-1} = \eta \rightarrow$ ERRESISTIBITATEA

Nola lotzen da hau ezaguna zaigun erresistentziarekin)



Erresistibitate handiko material bat txikiko beste batekin dugunean, korronte gutxia erres. handiko materialetik joango da.

$$V_B - V_A = -\int_A^B d\vec{e} \cdot \vec{E}$$

$I(s) = \int_S d\vec{S} \cdot \vec{j} \rightarrow$ Berez, intentsitatea azalera batekin zehazten dugu. Izan ere, hartzen dugun $\hat{n}$-ren araberakoa da I-ren zeinua.

$\vec{E} = E(x) \cdot \hat{u}_x \rightarrow \nabla \cdot \vec{E} = E'(x) \Rightarrow E'(x) = 0$

Ondorioz, $V_B - V_A = -E \cdot \ell$

$$\vec{j} = g \cdot \vec{E} = g \cdot \frac{V_A - V_B}{\ell} \hat{u}_x$$

Beraz, aurreko adierazpenetik, $I(S_x) = g\, S \cdot \frac{\Delta V}{\ell}$

$R = \frac{\ell}{g \cdot S}$ harturik, $\Rightarrow \Delta V = R \cdot I$

OHMen LEGE EZAGUNA

- JOULEen LEGEA

$$\vec{F} = q\cdot\vec{E} \Rightarrow \quad W_{AB}^{q} = q\cdot\int_A^B d\vec{r}\cdot\vec{E} = q\cdot\Delta V$$

$$\frac{dW}{dt} = I\cdot\Delta V = I\cdot RI = R\cdot I^2 \Rightarrow \boxed{P = RI^2}$$

- INDAR ELEKTROERAGILEA:

$$\int_\gamma d\vec{e}\cdot\vec{j} = ?$$

ohmikoa   homogeneoa   Indar kontserbakorra

$$= \int_\gamma d\vec{e}\cdot\sigma\vec{E} = \sigma\cdot\int_\gamma d\vec{e}\cdot\vec{E} = 0$$

Baina zirkulazioa ez da zero!

$$\vec{F} = q\cdot\vec{E} + \vec{F}_{besteak} \Rightarrow \quad \varepsilon_\gamma = \int_\gamma d\vec{e}\cdot\frac{\vec{F}_{besteak}}{q}$$

Ondorioz, $\vec{J}$ ez da ohmen legeak emandakoa izango:

$$\vec{J} = \vec{J}_E + \vec{J}_{besteak}$$

$$\frac{\vec{F}_{best}}{q} = \vec{E}_{eraginkorra} \Rightarrow \quad \vec{J} = \sigma(\vec{E} + \vec{E}_{eraginkorra})$$

$$\int_\gamma d\vec{l}\cdot\vec{j} = g\cdot\int_\gamma d\vec{l}\cdot\vec{E}_{eras.} = g\cdot\mathcal{E}_\gamma \Rightarrow \mathcal{E} = \frac{1}{g}\int_\gamma d\vec{l}\cdot\vec{j}$$



$$j \sim \frac{I}{s} \Rightarrow \mathcal{E} = I\cdot R$$

$$\langle\vec{j}\rangle = \frac{1}{s}\int (d\vec{s}\cdot\vec{j})\hat{u}_e$$ Batez bestekoa $\vec{j}$

$$\int d\vec{l}\cdot\langle\vec{j}\rangle = \frac{1}{s}\int dl\cdot d\vec{s}\cdot\vec{j} = \frac{1}{s}\int ds\cdot d\vec{l}\cdot\vec{j}$$

$$\langle\vec{j}\rangle = \frac{I}{s}\hat{u}_e$$

$$\left.\begin{array}{l}\int \frac{I\cdot dl}{g\,s} = \mathcal{E} \\ I\cdot R = \mathcal{E}\end{array}\right\} \quad R = \int\frac{dl}{g\cdot S}$$



$$V(a) - V(b) = \mathcal{E}$$

$$\vec{j}(r) = g\vec{E}(r) = g\cdot E(r)\cdot\hat{u}_r$$

$$I(r) = \int_{S(r)} d\vec{s}\cdot\vec{j} = \int_{S(r)} ds\cdot j(r) = j(r)\cdot\int_{S(r)} ds = j(r)\cdot 2\pi r h$$

$$j(r) = \frac{I}{2\pi h r} \qquad E(r) = \frac{I}{2\pi h g r}$$

$$V(a)-V(b)=\int_a^b \frac{I}{2\pi hg}\cdot\frac{dr}{r}=\frac{I}{2\pi hg}\ln\frac{b}{a}=\mathcal{E}=R\cdot I$$

$$R=\frac{1}{2\pi gh}\cdot\ln\frac{b}{a}$$



$$R=\frac{1}{g}\,\frac{h}{\pi(b^2-a^2)}$$

- HUGALDE-BALDINTZAK:





$$\boxed{j_{1n}=j_{2n}}$$

$$\vec{J}_1\cdot\hat{n}=\vec{J}_2\cdot\hat{n}$$

$$E_{2t}=E_{1t}$$

$$\Downarrow$$

$$\boxed{\frac{j_{2t}}{g_2}=\frac{j_{1t}}{g_1}}$$

$$\tan\theta_i=\frac{j_{1t}}{j_{1n}}$$

$$\frac{\tan\theta_i}{\tan\theta_r}=\frac{j_{1t}/j_{1n}}{j_{2t}/j_{2n}}=\frac{j_{1t}}{j_{2t}}=g_1/g_2$$

$$\boxed{\frac{\tan\theta_t}{\tan\theta_r} = \frac{g_1}{g_2}}$$

Ohm: $\vec{J} = g\vec{E}$

$$\partial_t \rho + \nabla\cdot\vec{J} = 0 \quad \rightsquigarrow \quad \partial_t\rho + g\cdot\nabla\cdot\vec{E} = \partial_t\cdot\rho + g\cdot\frac{\rho_{askea}}{\epsilon_0} = 0$$

$$= \partial_t\cdot\rho + \frac{g}{\epsilon}\cdot\nabla\cdot\vec{D} = \partial_t\rho + \frac{g}{\epsilon}\rho = 0$$

Ekuazio horretatik: $\rho(\vec{x},t) = e^{-gt/\epsilon}\cdot\rho(\vec{x},0)$

Elektromagnetismoa I — Korrontea

1. Diska baten erradioa a da, eta σ gainazaleko karga dentsitate uniformea du. Diskarekiko elkarzuta eta diskoaren zentrutik pasatzen den ardatz baten inguruan biratzen ari da ω abiadura angeluar konstantez. Kalkula ezazu I korronte eraginkorra.

2. Esfera metaliko baten erradioa a da, eta b erradioko beste esfera zentrukide batez inguratuta dago, $b > a$ izanik. Esfera bien arteko aldea $\sigma(E) = kE$ eroankortasun aldakorreko material batez beteta dago, E eremu elektrikoaren modukua eta k konstante bat izanik. Esfera bien artean V potentzial diferentzia konstante ezartzen bada, zer korronte sortuko da esferen artean? Zein da sistemak erabilitako potentzia? Esango al zenuke Ohmen legea betetzen dela? Zergatik?

3. Zirrindola lau baten lodiera t da, eta bere barneko eta kanpoko erradioak R_1 eta R_2 dira hurrenez hurren. Zirrindola eroale ohmikoa da, g eroankortasuna izanik. Kalkula ezazu erresistenzia ondoko hiru konfigurazioetan: a) potentzial diferentzia barneko eta kanpoko gainazal zilindrikoen artean dugu; b) potentzial diferentzia goiko eta beheko gainazal lauen artean sortu dugu; c) erradialki ebaki dugu, eta sortutako bi gainazal berrien artean jartzen dugu potentzial diferentzia (hots, korrontearen ibilbideak zirkularrak dira). Zenbakizko aplikazioa: $g = 10^5\ \mathrm{S\cdot m^{-1}} = 10^5\ (\Omega\cdot \mathrm{m})^{-1}$, $R_1 = 10$ mm, $R_2 = 20$ mm, $t = 3$ mm.



4. Irudiko l_1 eta l_2 luzerako harien sekzioa A dugu. Eroankortasunak g_1 eta g_2 dira, hurrenez hurren. Haien muturren arteko potentziala, V, konstante mantentzen dugu. Kalkula itzazu hari bakoitzeko korronte dentsitatea eta eremu elektrikoa. Zenbatekoa da gainazaleko karga dentsitate osoa harien lotura gainazalean? Demagun orain, aurreko hipotesiaz gain, hari biak dielektriko linealak direla, ϵ_1 eta ϵ_2 permitibitateekin. Kalkula itzazu polarizazio karga banaketa guztiak. Al dago karga askerik loturan?



5. Irudiko kontaktu erdiesferikoa lurperatu dute, lur arrasean. Lagun bat inguratzen denean tentsio diferentzia sortzen da bere hanken artean (urrats tentsioa, hain zuzen ere). Demagun kontaktuan sartzen den intentsitatea I, urrats bakoitzen luzera l, oin hurbilaren eta kontaktuaren ardatzaren arteko distantzia r_0 eta lurraren eroankortasuna g direla. Zenbatekoa da urrats tentsioa? Zenbakizko aplikazioa: $g = 10^{-2}\ \Omega^{-1}\cdot \mathrm{m}^{-1}$, $I = 1$ A, $r_0 = 2.0$ m, $l = 2$ m.





6. Bi xafla eroale lau eta paralelo d distantzia banatuta daude. Haien arteko aldea bi material lineal, homogeneo, eta isotropoez beteta dago. Haien arteko baztertze-gainazala xaflen plano paraleloa da. Lehenengo materialaren propietateak g_1 eta ϵ_1 eta haren lodiera x dira. Bigarrenaren propietateak, berriz, g_2 eta ϵ_2 eta haren lodiera $d - x$ da. Xaflak Φ_1 eta Φ_2 potentzial konstanteetara mantentzen dira, haien artean korronte egonkorra sortuz. Lor ezazu potentziala baztertze-gainazalean eta bertan dagoen karga askearen dentsitatea.

7. Kondentsadore lau bat astiro betetzen dugu ϵ permitibitateko dielektrikoarekin. Xaflen arteko V potentziala konstante mantentzen da. Dielektrikoaren t uneko altuera $h(t)$ dela onartuz, kalkula itzazu korronte intentsitatea eta bateriak sortutako aldiuneko potentzia. Zenbat energia emango dugu kondentsadorea bete arte?



2. ARIKETA

Esfera metaliko baten erradioa a da, eta b erradiodun beste esfera zentrokide batez inguratuta dago, b>a izanik. Esfera bien arteko aldea $\sigma(r) = kr$ eroankortasun aldakorreko material batez beteta dago. Esfera bien artean V potentzial diferentzia konstante bat ezartzen bada, zer korronte sortuko da esferen artean? Zein da sistemak erabilitako potentzia? Betetzen da Ohm-en legea?

$\vec{S}_1 = S_1(-\hat{u}_r)$
$\vec{S}_2 = S_2\,\hat{u}_r$

Simetria esferikoa dugunez: $\vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r$

$$\Delta V = V = -\int_b^a \vec{E}\cdot d\vec{r} = -\int_b^a E\,dr = \int_a^b E\,dr$$

Erlazio hori geroago erabiliko dugu.

Bestalde, kargaren kontserbazioarengatik: $\frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla\cdot\vec{J} = 0$

Egoera geldikorra $\Rightarrow$ $\frac{\partial \rho}{\partial t} = 0$ $\Rightarrow$ $\nabla\cdot\vec{J} = 0$

$$\int_V \nabla\cdot\vec{J}\,dv = 0 \Rightarrow \int_{\partial V} \vec{J}\cdot d\vec{S} = 0$$ non ∂V V-ren muga den (beraz, $S_1 \cup S_2$)

Dibergentziaren teorema

$$\int_{\partial V} \vec{J}\cdot d\vec{S} = \int_{S_1} \vec{J}\cdot dS(-\hat{u}_r) + \int_{S_2} \vec{J}\cdot dS(\hat{u}_r) = -I_1 + I_2 = 0 \Rightarrow I_1 = I_2$$

Intentsitatea berdina izango da!

$$\vec{J} = \sigma\vec{E} \Rightarrow \vec{E} = \vec{J}/\sigma \Rightarrow E = J/\sigma$$

$$I = \int_S \vec{J}\cdot d\vec{S} = J(r)\cdot 4\pi r^2 \text{ (edozein gainazal bat)}$$

$$\hookrightarrow J(r) = \frac{I}{4\pi r^2}$$

$j(r) = \sigma \cdot E(r)$

$$\frac{I}{4\pi r^2} = kE(r)\, E(r) \Rightarrow \quad E(r) = \sqrt{\frac{I}{4k\pi r^2}}$$

Beraz, garatu dezakegu potentzialaren integrala:

$$\Delta V = \int_a^b \sqrt{\frac{I}{4\pi k}}\, \frac{dr}{r} = \sqrt{\frac{I}{4\pi k}} \cdot \left[\ln r\right]_a^b = \sqrt{\frac{I}{4\pi k}}\, \ln\left(\frac{b}{a}\right)$$

$$V^2 = \frac{I}{4\pi k} \ln^2\left(\frac{b}{a}\right) \Rightarrow \quad \boxed{I = 4\pi k V^2 \ln^{-2}(b/a)}$$

$$P = VI \Rightarrow \quad \boxed{P = 4\pi k V^3 \ln^{-2}(b/a)}$$

Ez da ohm-en legea betetzen, intentsitatea eta potentzialaren artean ez dagoelako erlazio lineialik.

3. ARIKETA

Zirrindola baten lodiera t da, eta barne- eta kanpo-erradioak R_1 eta R_2, hurrenez hurren. Zirrindola eroale ohmikoa da, g eroankortasuna izanik. Kalkula ezazu erresistentzia ondoko 3 konfigurazioetan:

a) Potentzial diferentzia barneko eta kanpoko gainazalen artean dago.



Kargaren kontserbazioarengatik, badakigu gainazalean zehar karga berdina higituko dela.

Gainera, gainazala infinitu geruzetan ebaki dezakegu, bata bestetik oso gertu daudelarik eta itxura berdina izanik.

Gauzak horrela, $R = \frac{l}{gS}$ erlazioa aplika dezakegu.

dl bakoitzari S gainazala esleituko diogu (laranja)

$$R = \int_R dR = \int_{R_1}^{R_2} \frac{dr}{g\,S(r)} = \frac{1}{g}\int_{R_1}^{R_2} \frac{1}{t \cdot 2\pi r}\,dr = \frac{\ln(R_2/R_1)}{2\pi g t}$$

b) Potentzial diferentzia goiko eta beheko gainazalen artean.

Aurreko arrazonamendu berdina erabiliz:



Kasu honetan dl altueraren diferentziala eta $S = \pi(R_2^2 - R_1^2)$

$$R = \int_R dR = \int_0^t \frac{1}{g(\pi(R_2^2 - R_1^2))}\,dl = \frac{t}{g\pi(R_2^2 - R_1^2)}$$

c) Erradialki ebaki, eta sortutako bi gainazalen artean ezartzen dugu potentzial diferentzia (korrontearen ibilbidea zirkularra).



Korrontea erradialki doanez: $\vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_\varphi$

$$V = -\int_L \vec{E}(\vec{r})\cdot d\vec{l} = -\int_0^{2\pi} E(r)\,\hat{u}_\varphi \cdot dl\,\hat{u}_\varphi = -E(r)\int_0^{2\pi} r\,d\varphi = -E(r)\cdot 2\pi r$$

$$V = -E(r)\,2\pi r \rightarrow \quad E(r) = \frac{-V}{2\pi r}$$

Kargaren kontserbazioarengatik $\Rightarrow \quad \frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla\cdot\vec{J} = 0$

Egoera geldikorra: $\frac{\partial \rho}{\partial t} = 0 \quad \Rightarrow \quad \nabla\cdot\vec{J} = 0$

$\int_V \nabla\cdot\vec{J}\,dv = \int_{\partial V} \vec{J}\cdot d\vec{S} = 0$ $\quad$ ∂V gainazal osoa, baina $\vec{J} \parallel d\vec{S}$ soilik pilara konektatutako bi gainazaletan, bestela $\vec{J} \perp d\vec{S}$

$$\int_{\partial V} \vec{J}\cdot d\vec{S} = \int_{S_1} J(r)(-\hat{u}_\varphi)\,dS\,\hat{u}_\varphi + \int_{S_2} J(r)\,\hat{u}_\varphi\cdot dS\,\hat{u}_\varphi = -I_1 + I_2 = 0 \Rightarrow \boxed{I_1 = I_2} = I$$

Korrontea berdina da zirkuitu osoan!

$$\vec{J}(\vec{r}) = g\cdot\vec{E}(\vec{r}) \quad \Rightarrow \quad \vec{J}(\vec{r}) = g\cdot\frac{-V}{2\pi r}\,\hat{u}_\varphi$$

$I = \int_S \vec{J}(\vec{r})\cdot d\vec{S} =$ $\quad$ S hartuko dugu ibilbidearen aurpegi erradiala. $\vec{J}$ $\vec{r}$-ren menpe dagoenez, $d\vec{S}$ aurpegiaren zati bertikala.

$$= \int_S g\cdot E\cdot dS = \int_{R_1}^{R_2} g\cdot\frac{-V}{2\pi r}\,t\,dr = \frac{gtV}{2\pi}\left[\ln r\right]_{R_2}^{R_1} = \frac{gtV}{2\pi}\ln\left(\frac{R_1}{R_2}\right) = I$$

Ohmen legea $\Rightarrow \quad V = I\cdot R \Rightarrow R = V/I$

$$\boxed{R = \frac{2\pi}{gt\ln(R_1/R_2)}}$$

4. ARIKETA

Irudiko l_1 eta l_2 luzerako harien sekzioa A dugu. Eroankortasunak g_1 eta g_2 dira, hurrenez hurren. Haien arteko potentziala, V, konstante mantentzen dugu. Kalkula itzazu hari bakoitzeko korronte-dentsitatea eta eremu elektrikoa. Zenbatekoa da gainazaleko karga-dentsitate osoa harien lotura gainazalean? Demagun orain, aurreko hipotesiaz gain, hari biak dielektriko linealak direla, ε_1 eta ε_2 permitibitateekin. Kalkula itzazu polarizazio karga banaketa guztiak. Ba al dago karga askerik loturan?



Kargak ezkerretik eskuinera $\Rightarrow$ $\vec{j}(\vec{r}) = j(x)\,\hat{u}_x$

$\vec{E}(\vec{r}) = E(x)\,\hat{u}_x$

Bestalde, $-V = -\int_0^{l_1+l_2} \vec{E}\cdot d\vec{r}$

$$\int_{V(0)}^{V(l_1+l_2)} dV = V(l_1+l_2) - V(0) = -V$$

Kargaren kontserbazioarengatik: $\frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla\cdot\vec{j} = 0$

Egoera geldikorra: $\frac{\partial \rho}{\partial t} = 0 \Rightarrow \nabla\cdot\vec{j} = 0 \rightarrow \frac{\partial j}{\partial x} = 0 \Rightarrow j = kte$

Printzipioz pentsa dezakegu $j(x) = \begin{cases} j_1, & x\in[0,l_1] \\ j_2, & x\in[l_1, l_1+l_2] \end{cases}$

Baina $\int_V \nabla\cdot\vec{j}\,dV = \int_{\partial V} \vec{j}\cdot d\vec{s} = -j_1 A + j_2 A = 0 \Rightarrow j_1 = j_2$!

Beraz, badakigu j konstante zilindro osoan.

$j(x) = j = kte$ denez, $E(x) = \begin{cases} j/g_1, & x\in[0,l_1] \\ j/g_2, & x\in[l_1, l_1+l_2] \end{cases}$

$$-V = -\int_0^{l_1+l_2} \vec{E}\cdot d\vec{r} = -\int_0^{l_1} j/g_1\,dx - \int_{l_1}^{l_1+l_2} j/g_2\,dx = -j\left(\frac{l_1}{g_1} + \frac{l_1+l_2-l_1}{g_2}\right) = -j\left(\frac{l_1}{g_1} + \frac{l_2}{g_2}\right)$$

$$V = j\left(\frac{l_1}{g_1} + \frac{l_2}{g_2}\right) \Rightarrow \boxed{j = \frac{V g_1 g_2}{g_2 l_1 + g_1 l_2}} \rightarrow \vec{j}(x) = \frac{g_1 g_2 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}\vec{i}$$

Eta orduan:

$$\boxed{\vec{E}(x) = \begin{cases} \dfrac{V g_2}{g_2 l_1 + g_1 l_2}\vec{i}, & 0 \leq x \leq l_1 \\ \dfrac{V g_1}{g_2 l_1 + g_1 l_2}\vec{i}, & l_1 \leq x < l_1 + l_2 \end{cases}}$$

Gainazalean dagoen karga-dentsitatea kalkulatzeko, hurrengo mugalde-baldintza aplikatuko dugu:

$\sigma_{TOTAL} = \vec{n}\cdot(\vec{E}_2 - \vec{E}_1)$, $\vec{n}$ 1. gainazaletik ateratzen den bektore unitarioa. (Gure kasuan $\vec{n} = \vec{i}$)

$$\boxed{\sigma_{TOTAL} = \frac{(g_1 - g_2)V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}}$$

Polarizazio karga-banaketa guztiak kalkulatzeko, $\vec{D}$ erabiliko dugu.

Dielektrikoak linealak direnez, $\vec{D}(x) = \epsilon(x)\cdot\vec{E}(x)$ $(\vec{D}(x) = D(x)\vec{i})$

Beraz, $$\vec{D}(x) = \begin{cases} \dfrac{\epsilon_1 g_2 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}\vec{i}, & 0 \leq x \leq l_1 \\ \dfrac{\epsilon_2 g_1 V}{g_2 l_1 + g_2 l_1}\vec{i}, & l_1 \leq x \leq l_1 + l_2 \end{cases}$$

Orain, polarizazio-bektorea $\vec{P}(x) = \vec{D} - \epsilon_0\vec{E}$ $(\vec{P}(x) = P(x)\vec{i})$

Beraz, $$\vec{P}(x) = \begin{cases} \dfrac{(\epsilon_1 - \epsilon_0)g_2 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}\hat{u}_x, & 0 < x < l_1 \\ \dfrac{(\epsilon_2 - \epsilon_0)g_1 V}{g_2 l_1 + g_1 l_1}\hat{u}_x, & l_1 < x < l_1 + l_2 \end{cases}$$

$\vec{P}(x)$ konstantea denez, ez da bolumenean induzitutako kargarik egongo.



$\Rightarrow \quad \vec{n}_A = -\hat{u}_x \qquad \vec{n}_{B_1} = \hat{u}_x \qquad \vec{n}_{B_2} = -\hat{u}_x \qquad \vec{n}_C = \hat{u}_x$

$$\boxed{\sigma_A = \vec{P}(0)\,\vec{n}_A = -\frac{(\varepsilon_1-\varepsilon_0)g_2 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}} \qquad \boxed{\sigma_{B_2} = \vec{P}(l_1^+)\,\vec{n}_{B_2} = -\frac{(\varepsilon_2-\varepsilon_0)g_1 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}}$$

$$\boxed{\sigma_{B_1} = \vec{P}(l_1^-)\,\vec{n}_{B_1} = \frac{(\varepsilon_1-\varepsilon_0)g_2 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}} \qquad \boxed{\sigma_C = \vec{P}(l_1+l_2)\,\vec{n}_C = \frac{(\varepsilon_2-\varepsilon_0)g_1 V}{g_2 l_1 + g_1 l_2}}$$

Ikus daitekeenez, $\sigma_{B_1} + \sigma_{B_2} \neq \sigma_{total}$, beraz BADAGO karga askea loturan. Izan ere, $\vec{D}$-ren salto bat dugu, eta horrek karga askearen metaketa adierazten digu.

5. ARIKETA

Irudiko kontaktu erdiesferikoa lurperatu dute. Lagun bat hurbiltzen denean tentsio diferentzia sortzen da hanken artean (urrats tentsioa). Kontaktuan sartzen den intentsitatea I da, urratsen luzera l, oin hurbilaren eta ardatzaren arteko distantzia r_0 eta lurraren eroankortasuna g. Kalkulatu urrats-tentsioa.



Kontaktua erdiesferikoa denez, intentsitatea erradialki hedatuko dela dakigu

Beraz, $\begin{cases} \vec{J}(\vec{r}) = j(r)\,\hat{u}_r \\ \vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r \end{cases}$

Hasteko, karga kontserbazioarengatik, badakigu gainazal bakoitza zeharkatuko duen intentsitatea berdina dela.

$$I = \int_S \vec{j}(r)\,d\vec{s} = j(r)\int_S ds = j(r)\cdot 2\pi r^2 \Rightarrow \underline{j(r) = \frac{I}{2\pi r^2}}$$

Orain, Ohm-en legea aplikatuz:

$$\vec{J}(\vec{r}) = g\vec{E}(\vec{r}) \Rightarrow \vec{E}(r) = \vec{J}(r)/g \qquad (\vec{E}(r) = E(r)\,\vec{u}_r)$$

$$\vec{E}(r) = \frac{I}{2g\pi r^2}\,\vec{u}_r$$

Beraz, eremua izanda berehala jakin dezakegu zein den urrats tentsioa.

$$\int_{\phi(r_0)}^{\phi(r_0+l)} d\phi = -\int_{r_0}^{r_0+l} \vec{E}(\vec{r})\,d\vec{r} = -\int_{r_0}^{r_0+l} \frac{I}{2g\pi r^2}\,dr = -\frac{I}{2g\pi}\left[-\frac{1}{r}\right]_{r_0}^{r_0+l} = \frac{-I}{2\pi g}\left(\frac{1}{r_0} - \frac{1}{r_0+l}\right) =$$

$$= \frac{-l\cdot I}{2\pi g r_0(r_0+l)} = \phi(r_0+l) - \phi(r_0) = -\left(\phi(r_0) - \phi(r_0+l)\right)$$

Ondorioz, $\boxed{\Phi_{urrats} = \frac{l\,I}{2\pi g(r_0+l)\,r_0}}$

6. ARIKETA

Bi xafla eroale lau eta paralelo d distantziara daude. Haien arteko aldea bi material lineal, homogeneo eta isotropoz beteta dago. Lehenengoaren propietateak g_1 eta ε_1 dira, eta lodiera x. Bigarrenarenarenak g_2, ε_2 eta $d-x$ dira. Xaflak Φ_1 eta Φ_2 potentzial konstanteetara mantentzen dira, haien artean korronte egonkorra sortuz. Lor ezazu potentziala banaketa-gainazalean eta bertan dagoen karga askearen dentsitatea.



Potentziala kalkulatzeko $\vec{E}$ behar dugu lehenik eta behin.

$$\begin{cases} \vec{E}(\xi) = E(\xi)\,\vec{i} \\ \vec{j}(\xi) = j(\xi)\,\vec{i} \end{cases}$$

Jarraitutasunaren ekuazioa: $\frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla \cdot \vec{j} = 0$

Korronte egonkorra sortu dugunez: $\frac{\partial \rho}{\partial t} = 0 \Rightarrow \nabla \vec{j} = 0 \Rightarrow \frac{\partial j}{\partial \xi} = 0 \Rightarrow j = kte$!

$j(\xi) = g(\xi) \cdot E(\xi)$ dela jakinda $\rightarrow$ $\vec{E}(\xi) = \begin{cases} j/g_1\,\vec{i}, & 0 < \xi < x \\ j/g_2\,\vec{i}, & x < \xi < d \end{cases}$

$$\int_{\Phi(0)}^{\Phi(d)} d\Phi = -\int_0^d \vec{E} \cdot d\vec{\xi} = -\int_0^x j/g_1\, d\xi - \int_x^d j/g_2\, d\xi = -j\left(\frac{x}{g_1} + \frac{d-x}{g_2}\right) = -j\,\frac{g_2 x + g_1(d-x)}{g_1 g_2}$$

$$\Phi_2 - \Phi_1 = -j\,\frac{g_2 x + g_1(d-x)}{g_1 g_2} \quad \rightarrow \quad j = \frac{g_1 g_2(\Phi_1 - \Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}$$

Orain, eremua definituta dugunez, $\Phi(x)$ kalkula dezakegu.

$$\int_{\Phi(0)}^{\Phi(x)} d\Phi = -\int_0^x \frac{g_2(\Phi_1 - \Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}\, d\xi = -\frac{g_2(\Phi_1 - \Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}\, x$$

Beraz, $$\boxed{\Phi(x) = \Phi_1 - \frac{g_2 x(\Phi_1 - \Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}}$$

Orain, σ_{aske} kalkulatzeko $\vec{D}$ kalkulatu behar dugu. Izan ere, $\vec{E}$-ren mugalde baldintza aplikatuz σ_{total} kalkulatuko genuke.

Materialak linealak direnez: $\vec{D}(z) = \epsilon(z)\cdot\vec{E}(z)$ $\quad (\vec{D}(z) = D(z)\vec{i})$

Beraz, $$\vec{D}(x) = \begin{cases} \dfrac{\epsilon_1 g_2(\Phi_1-\Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}\vec{i}, & 0<z<x \\ \dfrac{\epsilon_2 g_1(\Phi_1-\Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}\vec{i}, & x<z<d \end{cases}$$

Orain, $\vec{n}\cdot(\vec{D}_2 - \vec{D}_1) = \sigma_{aske}$ mugalde baldintza aplikatuko dugu, $\vec{n}$ 1.etik ateratzen den bektore normala izanik (kasu, $\vec{i}$)

$$\sigma_{aske} = \vec{i}(\vec{D}_2 - \vec{D}_1) = \frac{\epsilon_2 g_1(\Phi_1-\Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)} - \frac{\epsilon_1 g_2(\Phi_1-\Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}$$

$$\boxed{\sigma_{aske} = \frac{(\epsilon_2 g_1 - \epsilon_1 g_2)(\Phi_1 - \Phi_2)}{g_2 x + g_1(d-x)}}$$

7. ARIKETA

Kondentsadore lau bat astiro betetzen dugu ε permitibitateko dielektriko-arekin. Xaflen arteko V potentziala konstante mantentzen dugu. Dielektrikoaren t uneko altuera $h(t)$ dela onartuz, kalkula itzazu korronte intentsitatea eta bateriak sortutako aldiuneko potentzia. Zenbat energia emango dugu kondentsadorea bete arte?





$$\vec{r_1} - \vec{r_2} = \vec{r_{12}}$$

$$\vec{F}_{2\to 1} = \frac{\mu_0}{4\pi} I_1 \cdot I_2 \oint_{\gamma_1}\oint_{\gamma_2} \frac{\vec{dl_1} \wedge [\vec{dl_2} \wedge \vec{r_{12}}]}{|\vec{r_{12}}|^3}$$

$$\mu_0 = 4\pi \cdot 10^{-7}\ N/A^2$$

$$\vec{A} \wedge (\vec{B} \wedge \vec{C}) = \vec{B} \cdot (\vec{A} \cdot \vec{C}) - \vec{C} \cdot (\vec{A}\,\vec{B})$$

$$\vec{dl_1} \wedge (\vec{dl_2} \wedge \vec{r_{12}}) = (\vec{dl_1} \cdot \vec{r_{12}})\,\vec{dl_2} - (\vec{dl_1} \cdot \vec{dl_2}) \cdot \vec{r_{12}}$$

$$\frac{\vec{dl_1} \cdot \vec{r_{12}}}{\vec{r_{12}}^3} = -d\,\frac{1}{r_{12}} = \frac{dr_{12}}{r_{12}^2}$$

$$r_{12} = |\vec{r_1} - \vec{r_2}| \qquad dr_{12}^2 = d(r_1^2 + r_2^2 - 2\vec{r_1} \cdot \vec{r_2}) =$$

$$= 2r_1\,dr_1 - 2\vec{r_2} \cdot d\vec{r_1} =$$

$$= 2 \cdot \vec{r_1} \cdot d\vec{r_1} - 2\vec{r_1}\,d\vec{r_2} =$$

$$= 2\,\vec{r_{12}} \cdot d\vec{r_{12}}$$

Aurreko bi gaietatik lehenengoa: $(d\vec{l}_1 \cdot \vec{r}_{12}) \cdot d\vec{l}_2$

$$\int_{\gamma_2} d\vec{l}_2 \int_{\gamma_1} \frac{d\vec{l}_1 \cdot \vec{r}_{12}}{r_{12}^3} = -\int_{\gamma_2} d\vec{l}_2 \int_{\gamma_1} d\frac{1}{r_{12}} = 0$$

Hortaz: $$\vec{F}_{2\to 1} = \frac{-\mu_0 I_1 I_2}{4\pi} \int_{\gamma_1}\int_{\gamma_2} d\vec{l}_1 \cdot d\vec{l}_2 \frac{\vec{r}_{12}}{r_{12}^3} = (*)$$

$$\vec{r}_{12} = -\vec{r}_{21} \Longrightarrow \vec{F}_{1\to 2} = -\vec{F}_{2\to 1}$$

$$(*) = I_1 \cdot \int_{\gamma_1} d\vec{l}_1 \wedge \vec{B}_2(\vec{l})$$

$$\vec{B}_2(\vec{r}_1) = \frac{\mu_0}{4\pi} \int_{\gamma_2} \frac{I_2 \cdot d\vec{l}_2 \wedge \vec{r}_{12}}{|\vec{r}_{12}|^3}$$

$$d\vec{F} = I \cdot d\vec{l} \wedge \vec{B} = \vec{J}(\vec{r}) \wedge \vec{B}(\vec{r}) \cdot d^3\vec{r}$$



$$d\vec{l} \cdot I = \vec{J} \cdot dS \cdot dl = \vec{J}\, dV \qquad \vec{J} \parallel \hat{n} \parallel d\vec{l}$$



$$d\vec{B}(\vec{r}) = \frac{\mu_0}{4\pi} \frac{\vec{J}(\vec{r}') \wedge (\vec{r} - \vec{r}')}{|\vec{r} - \vec{r}'|^3} dV'$$

$$\vec{B}(\vec{r}) = \frac{\mu_0}{4\pi}\int d^3\vec{r}\,' \frac{\vec{J}(\vec{r}\,')\wedge(\vec{r}-\vec{r}\,')}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|^3}$$

↳ korronte-dentsitateak sortutako $\vec{B}$

Orain, $\vec{B}$ ezaguna → zein da korronte dentsitateak jasandako indarra?

$$d\vec{F}(\vec{r}) = (\vec{J}(\vec{r})\,d^3\vec{r})\wedge\vec{B}(\vec{r})$$



$\vec{v}(\vec{r})$ $\qquad \vec{J}(\vec{r}\,') = q\,\vec{v}(\vec{r}\,')\,\delta(\vec{r}\,'-\vec{x})$

$$\vec{F} = \int dv\, \vec{J}\wedge\vec{B} = q\cdot\vec{v}\wedge\vec{B}$$

• EREMU MAGNETOSTATIKOAREN LEGE DIFERENTZIALAK

$$\nabla\wedge(f\cdot\vec{A}) = \nabla f\wedge\vec{A} + f\,\nabla\wedge\vec{A}$$

$$\nabla\wedge\frac{\vec{J}(\vec{r}\,')}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|} = \left(\nabla\frac{1}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|}\right)\wedge\vec{J}(\vec{r}\,') = -\frac{\vec{r}-\vec{r}\,'}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|^3}\wedge\vec{J}(\vec{r}\,')$$

$$\vec{B}(\vec{r}) = \int d^3\vec{r}\,'\,\nabla\wedge\left(\frac{\vec{J}(\vec{r}\,')}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|}\right) = \frac{\mu_0}{4\pi}\nabla\wedge\left(\int d^3\vec{r}\,'\frac{\vec{J}(\vec{r}\,')}{|\vec{r}-\vec{r}\,'|}\right)$$

$\boxed{\nabla\cdot\vec{B} = 0}$ GAUSSen LEGE MAGNETIKOA

$$\nabla\cdot(\nabla\wedge\vec{A}) = 0$$

Izan ere, eremu lerroak itxiak dira!



$$\nabla \wedge (\nabla \wedge \vec{C}) = \nabla(\nabla \vec{C}) - \nabla^2 \vec{C}$$

$$\nabla \wedge \vec{B} = \frac{\mu_0}{4\pi} \nabla \wedge \left(\nabla \wedge \int dv' \cdot \frac{\vec{J}}{|\vec{r} - \vec{r}'|} \right) =$$

$$= \frac{\mu_0}{4\pi} \left[\nabla \cdot \left(\int d\vec{r}' \cdot \cancel{\vec{J}(\vec{r}') \cdot \nabla \frac{1}{|\vec{r} - \vec{r}'|}}^{\,0} \right) - \right.$$

$$\left. - \int d^3\vec{r}' \cdot \vec{J}(\vec{r}') \cdot \nabla^2 \frac{1}{|\vec{r} - \vec{r}'|} \right]$$

$$\nabla \wedge \vec{B} = -\frac{\mu_0}{4\pi} \int d^3\vec{r}' \; \vec{J}(\vec{r}') \cdot \nabla^2 \frac{1}{|\vec{r} - \vec{r}'|} = \mu_0 \cdot \vec{J}(\vec{r}')$$

$$\boxed{\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \vec{J}}$$ AMPÈREren LEGE DIFERENTZIALA

Elektrostatika	Magnetostatika
• $\nabla \cdot \vec{E} = \rho/\varepsilon_0$ Eremua eta iturriaren lotura	• $\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \vec{J}$ Eremua eta iturriaren lotura
• $\nabla \wedge \vec{E} = 0$ $\hookrightarrow \vec{E} = -\nabla \phi$	• $\nabla \cdot \vec{B} = 0$ $\hookrightarrow \vec{B} = \nabla \wedge \vec{A}$

Elektrostatikan ekuazioa ebazteko:

$$\nabla\cdot\vec{E} = \rho/\varepsilon_0 \rightarrow \int_{\partial V} d\vec{S}\cdot\vec{E} = \frac{1}{\varepsilon_0} Q(V)$$

Orain ekuazioa ebazteko:

$$\nabla\wedge\vec{B} = \mu_0\vec{J} \rightarrow \int_{\partial S} d\vec{r}\cdot\vec{B} = \int_S d\vec{S}\cdot(\nabla\wedge\vec{B}) =$$

$$= \mu_0 \int_S d\vec{S}\cdot\vec{J} =$$

$$\int_{\partial S} d\vec{r}\cdot\vec{B} = \mu_0\cdot I(S)$$

$$= \mu_0\cdot I(S)$$

Elektrostatikan ebazteko beste modu bat:

$$\Phi(\vec{r}) = \int \frac{d^3\vec{r}'}{4\pi\varepsilon_0}\cdot\frac{\rho(\vec{r}')}{|\vec{r}-\vec{r}'|}$$

Orain ebazteko beste modu bat:

$$\vec{A}(\vec{r}) = \frac{\mu_0}{4\pi}\int d^3\vec{r}' \; \frac{\vec{J}(\vec{r}')}{|\vec{r}-\vec{r}'|}$$

$$\vec{E} = -\nabla\Phi, \quad \Phi \rightarrow \Phi + C$$

$\vec{B} = \nabla\wedge\vec{A}, \quad \vec{A} \rightarrow \vec{A} + \nabla\xi \rightarrow$ Eskalar baten gradientea.

$\nabla\wedge(\nabla\cdot\xi) = 0$ denez, Gauge askatasuna bat dugu, $\vec{B}$ berdina sortzen baita.

↳ ADIBIDEA:



$$\vec{J} = \frac{I}{S}\hat{u}_x$$



$$= I\,\delta(z)\,\delta y\,\hat{u}_x \qquad d^3\vec{r}'\,\vec{J}(\vec{r}') = dx'\,dS\,J\,\hat{u}_x$$

$$\left\{\begin{array}{l}\vec{r} = x\hat{u}_x + y\hat{u}_y \\ \vec{r}' = x'\hat{u}_x\end{array}\right.$$

$$d\vec{B}(x,y) = \frac{\mu_0}{4\pi}\frac{dx' I\,\hat{u}_x \wedge \left[(x-x')\hat{u}_x + y\hat{u}_y\right]}{\left[(x-x')^2+y^2\right]^{3/2}} =$$

$$|\vec{r}-\vec{r}'|\cdot\sin\theta = y$$

$$= \frac{\mu_0 I}{4\pi}\frac{y\cdot dx'}{\left[(x-x')^2+y^2\right]^{3/2}}\hat{u}_z = \qquad (x-x') = \frac{y}{\tan\theta}$$

$$dx' = \frac{y}{\sin^2\theta}d\theta$$

$$= \frac{\mu_0 I}{4\pi}\frac{y\cdot y\,d\theta/\sin^2\theta}{y^3/\sin^3\theta}\hat{u}_z =$$

$$= \frac{\mu_0 I}{4\pi y}d\theta\,\sin\theta\,\hat{u}_z$$

Mugak:



$$\vec{B}(x\hat{u}_x + y\hat{u}_y) = \frac{\mu_0 I}{4\pi y}\int_\alpha^\beta d\theta\,\sin\theta\,\hat{u}_z = \frac{\mu_0 I}{4\pi y}\left[\cos\alpha - \cos\beta\right]\hat{u}_z$$

$$L=\infty \rightarrow \vec{B}(x\hat{u}_x + y\hat{u}_y) = \frac{\mu_0 I}{4\pi y}(1+1)\hat{u}_z = \frac{\mu_0 I}{2\pi y}\hat{u}_z$$

Beste modu batean:



$$\vec{B}(z=0,y) = B(y)\,\hat{u}_z$$

$$\vec{B}(\vec{r}) = B(r)\,\hat{u}_\varphi$$



$$\oint d\vec{l}\cdot\vec{B} = \mu_0 I(s) \qquad d\vec{l} = r\, d\varphi\, \hat{u}_\varphi$$

$$2\pi r B = \mu_0 I \Rightarrow \vec{B} = \frac{\mu_0 I}{2\pi r}\hat{u}_\varphi$$

ohartu $y\to\infty$ doanean ez dagoela zehaztuta:

$$\cos\alpha = \frac{a+x}{\sqrt{(a+x)^2+y^2}} \xrightarrow{a=0} \cos\alpha = \frac{1}{\sqrt{1+(y/x)^2}} \simeq \frac{x}{y}$$

$$\cos(\pi-\beta) = \frac{L-a-x}{\sqrt{(L-a-x)^2+y^2}} \xrightarrow{a=0} \cos\beta = -\frac{1}{\sqrt{1+\left(y/L-x\right)^2}} \simeq -\frac{L-x}{y}$$

$$\vec{B} \simeq \frac{\mu_0 I}{4\pi y}\left[\frac{x}{y} - \frac{x-L}{y}\right]\hat{u}_z = \frac{\mu_0 I L}{4\pi y^2}\hat{u}_z$$

↳ ADIBIDEA:



$$\vec{B}(z\hat{u}_z)$$

$$\vec{J}(\vec{r}')\, d^3\vec{r}' \Rightarrow I\, dl\, \hat{u}_\varphi = I a\, d\varphi\, \hat{u}_\varphi$$

$$d\vec{B} = \frac{\mu_0}{4\pi}\cdot\frac{I a\, d\varphi\, \hat{u}_\varphi \wedge (-a\hat{u}_r + z\hat{u}_z)}{[a^2+z^2]^{3/2}} = \frac{\mu_0 I a\, d\varphi}{4\pi[z^2+a^2]^{3/2}}\left[a\hat{u}_z + z\hat{u}_r\right]$$

$$\int_0^{2\pi}\hat{u}_r\, d\varphi = 0 \Rightarrow \hat{u}_r\text{-ren kontribuzioa} \to 0$$



$$\vec{B}(z\hat{u}_z) = \frac{\mu_0 I a^2}{2[z^2+a^2]^{3/2}}\hat{u}_z \rightarrow \text{Espirak sortutako eremua!}$$



Espirak sortutako $\vec{B}$-ren eremu lerroak elektrostatikan dipolo batek sortutako $\vec{E}$-ren eremu lerroen berdinak dira.



$$\vec{A}(\vec{r}) = \frac{\mu_0 I}{4\pi}\int_0^{2\pi}\frac{a\,d\varphi'\,\hat{u}_{\varphi'}}{|z\hat{u}_z + r\hat{u}_r - a\hat{u}_{r'}|}$$

$$\vec{r} = z\hat{u}_z + x\hat{u}_x$$

$$\hat{u}_{r'} = \cos\varphi'\,\hat{u}_x + \sin\varphi'\,\hat{u}_y$$

$$\hat{u}_{\varphi'} = -\sin\varphi'\,\hat{u}_x + \cos\varphi'\,\hat{u}_y$$

$$\vec{A}(\vec{r}) = \frac{a\mu_0 I}{4\pi}\int_0^{2\pi} d\varphi'\,\frac{[-\sin\varphi'\,\hat{u}_x + \cos\varphi'\,\hat{u}_y]}{[z^2+(x-a\cos\varphi')^2+a^2\sin^2\varphi']^{1/2}} =$$

funtzio bakoitia.

$$= \frac{\mu_0 a I}{4\pi}\int_{-\pi}^{\pi} d\varphi'\,\frac{[\cancel{-\sin\varphi'\,\hat{u}_x} + \cos\varphi'\,\hat{u}_y]}{[z^2+x^2+a^2-2xa\cos\varphi']^{1/2}}$$

Orain, $\vec{r} = z\hat{u}_z + r\,\hat{u}_r$ hartuz,

$$\vec{A}(\vec{r}) = \frac{\mu_0 I a}{4\pi}\int_{-\pi}^{\pi} d\varphi' \frac{\cos\varphi'\ \hat{u}_\varphi}{[z^2+r^2+a^2-2ar\cos\varphi']^{1/2}} = (*)$$

$$\boxed{\vec{A}(\vec{r}) = A_\varphi(r,z)\ \vec{u}_\varphi} + A_z(r,z)\,\hat{u}_z + A_r(r,z)\,\hat{u}_r$$

$z^2+r^2 >> a^2$:

$$(*) = \frac{\mu_0 I a\ \hat{u}_\varphi}{4\pi(z^2+r^2+a^2)^{1/2}}\int_{-\pi}^{\pi} d\varphi' \cos\varphi'\left[1-\frac{2ar}{z^2+r^2+a^2}\cos\varphi'\right]^{-1/2} =$$

$$= \frac{\mu_0 I a}{4\pi(z^2+r^2+a^2)^{1/2}}\hat{u}_\varphi\int_{-\pi}^{\pi} d\varphi' \cos\varphi'\left[1+\frac{ar}{z^2+r^2+a^2}\cos\varphi' + \dots\right] =$$

$$= \frac{\mu_0 I a\,\hat{u}_\varphi}{4\pi(z^2+r^2+a^2)^{1/2}}\,\pi\,\frac{ar}{z^2+r^2+a^2} + \dots =$$

$$= \frac{\mu_0 I a^2 r\,\hat{u}_\varphi}{4(z^2+r^2+a^2)^{1/2}} + \dots$$

$$\left.\begin{array}{l} R^2 = z^2+r^2 \\ r = R\cdot\sin\theta \end{array}\right\} \quad \vec{A} \simeq \frac{\mu_0 I a^2}{4}\frac{R\sin\theta}{(R^2+a^2)^{3/2}}\,\hat{u}_\varphi$$

$$\vec{m} = \frac{1}{2} I a\,\hat{u}_z$$

• SOLENOIDEA



Espirak bata bestearen atzean jarrita.



$dI = I\,n\,dx' \qquad N/L = n$

$$d\vec{B}(x) = \frac{\mu_0}{2} I\,n\,dx' \frac{a^2}{[(x-x')^2 + a^2]^{3/2}}\,\hat{u}_x$$

$$\frac{\xi - x}{a} = \tan\theta$$

$$\vec{B} = \frac{\mu_0 I n a^2}{2} \int_{\xi_1}^{\xi_2} d\xi \frac{\hat{u}_x}{[(\xi-x)^2 + a^2]^{3/2}} = \ldots$$

$$\vec{B} = \mu_0 I n\,\hat{u}_x$$

Eremua ateratzeko beste modu bat:



$\vec{J}$?



$\int \vec{J}\,d\vec{s} = n l I$

$\vec{J} = I n\,\delta(r-a)\,\hat{u}_\varphi$

$\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \vec{J}$

$\nabla \cdot \vec{B} = 0$

$B' = -\mu_0 I n\,\delta(r-a)$

$\hookrightarrow B(r) = \cancel{B_0}^{\,0} + \mu_0 I n\,\Theta(a-r)$

$$\vec{B} = \mu_0 n I \, \Theta(a-r) \, \hat{u}_z$$

Hirugarren modu bat:

$$\oint_\gamma d\vec{l} \cdot \vec{B} = \int_S d\vec{S} \, (\nabla \wedge \vec{B}) = \int_S d\vec{S} \, (\mu_0 \vec{J}) = \mu_0 \int_S d\vec{S} \cdot \vec{J} = \mu_0 I$$



Hartuko dugu $\vec{B}(\vec{r}) = B(r) \, \hat{u}_z$:

$$\oint_\gamma d\vec{l} \cdot \vec{B} = B(r) l - B(R) l = \mu_0 n l I$$

$$B(r) - B(R) = \mu_0 n I$$

$r < R < a$ hartuz gero, $B(r) - B(R) = 0 \Rightarrow B(r) = B(R)$

Solenoidearen barruko eremua kte. da!

Balioa zehazteko, demagun $B(\infty) = B_0$ dela.

$r < a < R$-ra beltatuz:

$$B(r) = \mu_0 n I + B_0 \; ; \quad I = 0 \Rightarrow B(r) = 0 \Rightarrow \boxed{B_0 = 0}$$

Hortaz, $\boxed{\vec{B}(\vec{r}) = \mu_0 n I \, \hat{u}_z}$

$\vec{J}, \vec{K}, I\,\hat{u}_\varphi \sim \rho, \sigma, \lambda$

$\vec{J} = I n\, \delta(r-a)\, \hat{u}_\varphi$ $\qquad \int_S d\vec{S} \cdot \vec{J} = I(S)$

$\vec{K} = I n\, \hat{u}_\varphi$



$I = \int dl\, K$



- TOROIDEA



$\vec{B} = B\,\hat{u}_\varphi = \dfrac{\mu_0 N I}{2\pi r}\,\hat{u}_\varphi$

- EROALE ZILINDRIKOA:



$\vec{J}(\vec{r}) = J(r)\,\hat{u}_z$

$\vec{B}(\vec{r}) = B(r)\,\hat{u}_\varphi$

$\oint \vec{B} \cdot d\vec{l} = B(r) \cdot 2\pi r$

$= \mu_0 I(r) = \mu_0 \int_r d\vec{S} \cdot \vec{J} =$

$$= \mu_0 2\pi \int_0^r ds\, s\, j(s) \qquad\qquad B(r) = \frac{\mu_0 I}{2\pi r}$$

$$B(r) = \frac{\mu_0}{r}\int_0^r ds\, s\, j(s) \qquad\qquad r>R, \quad I = 2\pi\int_0^R ds\, s\, j(s)$$

- GARAPEN MULTIPOLARRA MAGNETOSTATIKAN





$$|\vec r - \vec r'| >> |\vec r'|$$

$$\vec r^2 - 2\vec r\vec r' + \vec r'^2 >> (\vec r')^2$$

$\|\vec{M}\| = M_0\left(1 - \frac{t}{t_0}\right)$. Kalkulatu $\vec{E}$ eta $\vec{B}$ espazioko puntu guztietan. Har ezazu $R<a$ erradioko zilindro bat, lehenengoarekin ardatzkidea, L luzerakoa, eta aztertu horen energia elektromagnetikoa.



Problema ebazteko, korronte dentsitate baliokideak kalkulatuko ditugu:

$$\vec{J}_M = \nabla \wedge \vec{M} = 0$$

$$\vec{K}_M = \vec{M} \wedge \vec{n} = M\,\hat{u}_z \wedge \hat{u}_r \Rightarrow \vec{K}_M = M_0\left(1 - \frac{t}{t_0}\right)\hat{u}_\varphi$$

Korronteak zilindroaren inguruan zirkulatzen duenez, solenoide infinitu baten problema dugu.



Badakigu $\vec{B}(r,t) = B(r,t)\,\hat{u}_z$ izango dela.
Gainera, zilindrotik kanpo $(r>a)$ $B(r)=0$
($\nabla \cdot \vec{B} = 0$ denez). Ampère-ren legeak eremua emango digu:

$$\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \vec{J} \Rightarrow \oint_c \vec{B}\, d\vec{\ell} = \mu_0 I_{ing}$$

$0<r<a$:



$$\oint_c \vec{B}\, d\vec{\ell} = \int_\ell B\, d\ell = B\,\ell$$

$$I_{ing} = \int_\ell K\, d\ell = M_0\left(1 - \frac{t}{t_0}\right)\ell$$

Beraz $\longrightarrow$ $B\,\ell = \mu_0 M_0\left(1 - \frac{t_0}{t}\right)\ell \Rightarrow B = \mu_0 M_0\left(1 - \frac{t}{t_0}\right)$

$$\boxed{\vec{B}(r,t) = \begin{cases} \mu_0 M_0\left(1 - \frac{t}{t_0}\right)\hat{u}_z, & r<a \\ 0\,\hat{u}_z, & r>a \end{cases}}$$

$\vec{B}$ aldakorra denez, badakigu $\vec{E}$ bat induzituko duela.

$\vec{B}(r,t)=B(r,t)\hat{u}_z$ denez $\longrightarrow$ $\vec{E}(r)=E(r)\hat{u}_\phi$ izango da

Maxwellen ekuazioa: $\nabla\wedge\vec{E}=-\frac{\partial\vec{B}}{\partial t}$

$$\int_S(\nabla\wedge\vec{E})\,d\vec{s}=-\int_S\frac{\partial\vec{B}}{\partial t}\cdot d\vec{s} \underset{\text{Stokesen teorema}}{\Longleftrightarrow} \oint_{\partial S}\vec{E}\cdot d\vec{l}=-\int_S\frac{\partial\vec{B}}{\partial t}\cdot d\vec{s}$$

- $r<a$:



$$\oint_{\partial S}\vec{E}\cdot d\vec{l}=E(r)\cdot 2\pi r$$

$$\int_S\frac{\partial\vec{B}}{\partial t}\cdot d\vec{s}=+\int_S\left(-\frac{\mu_0 M_0}{t_0}\right)d\vec{s}=-\frac{\mu_0 M_0}{t_0}\pi r^2$$

Beraz $\rightarrow$ $E(r)\cdot 2\pi r=+\left(+\frac{\mu_0 M_0}{t_0}\pi r^2\right)\Rightarrow \underline{E(r)=\frac{\mu_0 M_0}{2t_0}r}$

- $r>a$:



$$\oint_{\partial S}\vec{E}\,d\vec{s}=E(r)\cdot 2\pi r$$

$$\int_S\frac{\partial\vec{B}}{\partial t}\cdot d\vec{s}=\int_S\frac{-\mu_0 M_0}{t_0}\cdot d\vec{s}=-\frac{\mu_0 M_0}{t_0}\pi a^2$$

Beraz $\rightarrow$ $E(r)\cdot 2\pi r=+\left(+\frac{\mu_0 M_0}{t_0}\pi a^2\right)\Rightarrow \underline{E(r)=\frac{\mu_0 M_0 a^2}{2t_0 r}}$

Beraz, emaitzak laburtuz: $$\boxed{\vec{E}(r)=\begin{cases}\frac{\mu_0 M_0}{2t_0}r\,\hat{u}_\phi, & r<a\\ \frac{\mu_0 M_0 a^2}{2t_0 r}\hat{u}_\phi, & r>a\end{cases}}$$

Energia elektromagnetikoa kalkulatzeko, elektrikoa eta magnetikoa bakoitza bere aldetik aztertuko ditugu.

$$U_E = \frac{1}{2}\int_V \varepsilon_0 E(r)^2 \, dV = \frac{1}{\cancel{2}}\int_0^R \varepsilon_0 \frac{\mu_0^2 M_0^2}{4 t_0^2} r^2 \cancel{2}\pi r \, dr \cdot L =$$

$$= \frac{\pi \varepsilon_0 \mu_0^2 M_0^2 L}{4 t_0^2}\left[\frac{r^4}{4}\right]_0^R = \frac{\pi \varepsilon_0 \mu_0^2 L M_0^2 R^4}{16 t_0^2}$$

$$U_M = \frac{1}{2}\int_V \frac{B(r)^2}{\mu_0} dV = \frac{1}{\cancel{2}}\int \mu_0 M_0^2 \left(1-\frac{t}{t_0}\right)^2 \cancel{2}\pi r L dr = \frac{\pi \mu_0 M_0^2 (t_0-t)^2 L}{t_0^2}\left[\frac{r^2}{2}\right]_0^R =$$

$$= \frac{\pi \mu_0 M_0^2 (t_0-t)^2 L R^2}{2 t_0^2}$$

Beraz,
$$\boxed{U_{EM} = \frac{\pi \mu_0^2 M_0^2 L R^2}{2 t_0^2}\left[\frac{\varepsilon_0 R^2}{8} + \frac{(t_0-t)^2}{\mu_0}\right]}$$

3. ARIKETA

Aurkitu ezazu irudiko objektuaren erresistentzia R_1 eta R_2 gainazalen artean, jakinik $\sigma = 6\cdot10^7\ \Omega^{-1}m^{-1}$ dela. Korrontea erradiala dela, eta bi gainazalak zeharkatzen dituen korrontea berdina da. Datuak: $R_1 = 0'5\,m$, $R_2 = 1\,m$, $\varphi = 10°$ eta $h = 5\,cm$.

Ariketa bi modutan ebatziko dugu:

ⓐ 

Gure objektua geruza txikitan banatu dezakegu (laranja), eta guztietatik intentsitate bera pasako denez, bata bestetik oso gertu daudenez eta itxura berdina dutenez, hurrengo adierazpena aplika dezakegu: $R = \frac{l}{\sigma S}$

Hori esandako geruza fin bakoitzari aplikatuz:

$$R = \int_R dR = \int_l \frac{dl}{\sigma S} = \frac{1}{\sigma}\int_{R_1}^{R_2} \frac{dr}{h\cdot r\cdot\varphi} = \frac{1}{\sigma h\varphi}\left[\ln r\right]_{R_1}^{R_2} = \frac{\ln(R_2/R_1)}{\sigma h \varphi}$$

Datuak ordezkatuz: $\boxed{R = 1'32\ \mu\Omega}$

ⓑ Demagun bi gainazalen artean V potentzial diferentzia aplikatzen dugula.

Orduan: $V = \int_{R_1}^{R_2}\vec{E}\cdot d\vec{r}$ Simetria zilindrikoagatik: $\vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r$

Jarraitasunaren ekuazioa: $\frac{\partial\rho}{\partial t} + \nabla\cdot\vec{J} = 0$

Potentzial diferentzia konstante bat aplikatu dugunez, korronte egonkor bat sortuko da: $\frac{\partial\rho}{\partial t} = 0 \Rightarrow \nabla\cdot\vec{J} = 0$

$$\int_V \nabla\cdot\vec{J}\,dV = \int_{\partial V}\vec{J}\cdot d\vec{S} = 0 = \int_{S_1}\vec{J}\cdot d\vec{S} + \int_{S_2}\vec{J}\cdot d\vec{S} = -I_1 + I_2 \Rightarrow I_1 = I_2 \Rightarrow$$ Intentsitatea beti berdina.

$$I = \int_S \vec{J}(\vec{r})\cdot d\vec{S} = J(r)\cdot\int_S dS = J(r)\cdot h\cdot r\cdot\varphi \Rightarrow J(r) = \frac{I}{h\cdot r\cdot\varphi}$$

Ohm-en legea: $\vec{J}(r) = g\,\vec{E}(r) \Rightarrow \vec{E}(r) = \vec{J}(r)/g$

Aurreko adierazpena berreskuratuz:

$$V = \int_{R_1}^{R_2} \frac{I}{g h r \varphi}\,dr = \frac{I}{g h \varphi}\left[\ln r\right]_{R_1}^{R_2} = \frac{I}{g h \varphi}\ln\frac{R_2}{R_1}$$

Bestalde, badakigu $V = I \cdot R \Rightarrow R = \frac{V}{I}$

$$R = \frac{V}{I} = \frac{\ln(R_2/R_1)}{g h \varphi} \Rightarrow \boxed{R = 1'32\,\mu\Omega}$$

4. ARIKETA

Izan bedi $\vec{E} = E_0 \cos(kz - \omega t)\,\hat{u}_x$, $\vec{B} = \frac{E_0}{c}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_y$ uhin elektromagnetikoa. Kalkulatu:

a) Poynting bektorea.

b) $\vec{A}$ potentzial bektorea.

c) ϕ potentziala.

Har ezazu $\nabla \cdot A = 0$ gauge askea eta suposatu potentzialak z eta t-ren menpekoak direla.

Fasea: $kz - \omega t \Rightarrow z^+$ norabidean hedatzen da.



Poynting bektorea kalkulatuz:

$$\vec{S} = \frac{1}{\mu_0}\vec{E} \wedge \vec{B}$$

$$\vec{S} = \frac{1}{\mu_0} E_0 \cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_x \wedge \frac{E_0}{c}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_y = \boxed{\frac{E_0^2}{c\mu_0}\cos^2(kz-\omega t)\,\hat{u}_z}$$

$\nabla \cdot \vec{A} = 0$ aukeratu dugunez, $\nabla \wedge \vec{A} = \vec{B}$ erabiliko dugu zehazteko $\vec{A}$

$\vec{B} = B\,\hat{u}_y \Rightarrow \nabla \wedge \vec{A} = (\nabla \wedge \vec{A})\,\hat{u}_y \Rightarrow \dfrac{\partial A_x}{\partial z} - \dfrac{\partial A_z}{\partial x} = \dfrac{E_0}{c}\cos(kz - \omega t)$

Baina suposatu dugunez $\vec{A} = \vec{A}(z)$, $\dfrac{\partial A_z}{\partial x} = 0$!

Beraz $\Rightarrow \dfrac{\partial A_x}{\partial z} = \dfrac{E_0}{c}\cos(kz - \omega t) \rightarrow \boxed{\vec{A}(z,t) = \dfrac{E_0}{k \cdot c}\sin(kz - \omega t)\,\hat{u}_x}$

Azkenik, ϕ kalkulatzeko: $\vec{E} = -\vec{\nabla}\phi$ erabiliko dugu

suposatu dugunez $\phi = \phi(z,t)$ dela: $\vec{\nabla}\phi = \dfrac{\partial \phi}{\partial z}\,\hat{u}_x$

Beraz, $\dfrac{\partial \phi}{\partial z} = -E_0 \cos(kz - \omega t) \rightarrow \boxed{\phi(z,t) = -\dfrac{E_0}{k}\sin(kz - \omega t)}$

Elektromagnetismoa I 2016/17 kurtsoko ez-ohiko azterketa



1. (3 puntu) Irudiko b erradioko xafla zirkular eta paraleloek kondentsadore bat osatzen dute, euren arteko distantzia $d \ll b$ izanda. Potentzial diferentzia $V(t) = V_0 \sin(\omega t)$ da. Plaken artean a aldeko eta R erresistentziako espira karratua kokatu dugu, irudian agertzen den moduan. Kalkula ezazu espiratik doan intentsitatea, eta espirari dagokion indar elektroeragilea.

2. (3 puntu) a erradioko esfera hutsaren gainazalean Q karga dago, uniformeki banandua gainazalean. ϵ konstanteko dielektriko batek guztiz inguratzen du esfera. Dielektriko honetan karga askearen banaketa dugu, infinituraino, ondoko adierazpenaren arabera:

$$\rho(r) = -Q_\epsilon k^2 \frac{e^{-kr}}{r}.$$

Hemen r esferaren zentrutik neurtutako distantzia da, eta Q_ϵ eta k konstanteak dira (zeintzuk dira euren dimentsioak?). Demagun infinituko potentziala zero dela. Kalkula ezazu esferaren zentruko potentzial elektrostatikoa. Lor itzazu polarizazio karga banaketak.



3. (2 puntu) R_1 eta R_2 erradioko esfera eroale zentrukideen artean korronte geldikor bat dario. Esferen arteko potentzial diferentzia V dugu, eta esferen arteko espazioa σ eroankortasunako eroale dago. Kalkula ezazu erresistentzia.

4. (2 puntu) Biz a erradioko zilindro infinitua, μ_1 iragazkortasun magnetikoz. Zilindro hau I intentsitateak zeharkatzen du ardatzaren norabidean, zilindroaren sekzioan uniformeki banandua. I intentsitate hau kanpoko geruza zilindriko zentrukide batetik itzultzen da. Geruza zilindriko honen barne erradioa b eta kanpo erradioa c ditugu, $c > b > a$. Geruza zilindrikoaren materialaren iragazkortasuna μ_2 da. Geruza honetan ere uniformea da korrontearen banaketa. Kalkula ezazu luzera unitateko energia magnetikoa.

1. ARIKETA

Irudiko b erradiodo xafla zirkular eta paraleloek kondentsadore bat osatzen dute, euren arteko distantzia $d \ll b$ izanik. Potentzial diferentzia $V(t) = V_0 \cdot \sin(\omega t)$ da. Plaken artean a aldeko eta R erresistentziako espira karratua dago, irudian agertzen den moduan. Kalkulatu espiratik doan intentsitatea, eta espirari dagokion indar elektroeragilea.



Xaflen arteko potentzial diferentzia aldakorrak eremu elektriko aldakor bat sortuko du, eta horrek eremu magnetiko aldakor bat. Horrela, espiran fluxu magnetikoaren aldaketak indar elektroeragile bat sortuko du, intentsitate bat induzituz.

Lehenik eta behin, $d \ll b$ denez, hertz efektuak arbuiatu ditzakegu eta ondorioz, onar dezakegu eremu elektrikoa uniformea izango dela.

Beraz, $\int_{V(0)}^{V(d)} dV = -\int_0^d \vec{E}\, d\vec{r} = -E d$

$$V(d) - V(0) = -E \cdot d \Rightarrow \vec{E} = \frac{V_0}{d}\sin(\omega t)\,\hat{u}_z$$

Esan bezala, $\vec{E}$ t-ren menpe dago, beraz $\vec{B}(t)$ bat sortuko da.

$$\vec{E}(t) = E(t)\,\hat{u}_z \Rightarrow \vec{B}(t) = B(t)\,\hat{u}_\varphi$$

Maxwell-en ekuazioa: $\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \vec{J} + \mu_0 \varepsilon_0 \frac{\partial \vec{E}}{\partial t}$

Plaken artean hutsa dagoenez, ez da $\vec{J}$-rik egongo.

Beraz: $\nabla \wedge \vec{B} = \mu_0 \varepsilon_0 \frac{\partial \vec{E}}{\partial t}$! $\quad \vec{J}_d = \varepsilon_0 \frac{\partial \vec{E}}{\partial t} = \frac{\varepsilon_0 \omega V_0}{d}\cos(\omega t)\,\hat{u}_z$



$$\int_S (\nabla \wedge \vec{B}) \cdot d\vec{s} = \mu_0 \int_S \vec{J}_d \cdot d\vec{s}$$

Ezkerreko atalean Stokesen teorema aplikatuz: $\oint_{\partial S} \vec{B}\, d\vec{l} = \mu_0 \int_S \vec{J}_d \cdot d\vec{s}$

$$\Rightarrow \quad B\, 2\pi r = \mu_0 \frac{\varepsilon_0 \omega V_0}{d} \cos(\omega t)\, \pi r^2 \Rightarrow \boxed{\vec{B}(r,t) = \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega V_0}{2d} \cos(\omega t)\, r\, \hat{u}_\varphi}$$

Orain, espiran zeharreko fluxua kalkulatuko dugu:



$$\Phi_m = \int_S \vec{B}\cdot d\vec{S} = \int_c^{c+a} \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega V_0}{2d} \cos(\omega t)\, r\, a\, dr =$$

$$= \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega V_0 a}{2d} \cos(\omega t) \left[\frac{r^2}{2}\right]_c^{c+a} = \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega V_0 a}{4d} \cos(\omega t)\,(a^2 + 2ac)$$

Beraz, $$\Phi_m = \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega a^2 V_0}{4d} (a+2c) \cos(\omega t)$$

Indar elektroeragilea, beraz:

$$\varepsilon_{iee} = -\frac{d\Phi_m}{dt} = + \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega a^2 V_0}{4d} (a+2c)(+\sin(\omega t)) \cdot \omega$$

$$\boxed{\varepsilon_{iee} = \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega^2 a^2 V_0}{4d} (a+2c) \sin(\omega t)}$$

Intentsitatea kalkulatzeko, Ohm-en legea aplikatuko dugu:

$$\varepsilon_{iee} = I R \Rightarrow \boxed{I = \frac{\mu_0 \varepsilon_0 \omega^2 a^2 V_0}{4dR} (a+2c) \sin(\omega t)}$$

2. ARIKETA

a erradioko esfera hutsaren gainazalean Q karga dugu, uniformeki banandua gainazalean. ε konstanteko dielektriko batek guztiz inguratzen du esfera. Dielektriko honetan karga askearen banaketa dugu, infinituraino, ondoko adierazpenaren arabera:

$$\rho(r) = -Q_\varepsilon k^2 \cdot \frac{e^{-kr}}{r}$$

Hemen 'r' esferaren zentrutik neurtutako distantzia da, eta Q_ε eta k konstanteak dira (zeintzuk dira euren dimentsioak?). Demagun infinituko potentziala zero dela. Kalkula ezazu esferaren potentzial elektrostatikoa. Lor itzazu polarizazio karga banaketak.

$$-kr \text{ esponentzialean} \Rightarrow \left.\begin{array}{l}[k\cdot r]=1\\ [r]=L\end{array}\right\} [k]=L^{-1}$$

$$\left.\begin{array}{l}[\rho]=[Q_\varepsilon k^2/r]=Q\cdot L^{-3}\\ [k^2]=L^{-2}\\ [\frac{1}{r}]=L^{-1}\end{array}\right\} [Q_\varepsilon]=Q$$

ϕ kalkulatzeko $\Rightarrow \vec{E} \Rightarrow \vec{D}$

Simetria esferikoa dugunez: $\left\{\begin{array}{l}\vec{E}(\vec{r})=E(r)\,\hat{u}_r\\ \vec{D}(\vec{r})=D(r)\,\hat{u}_r\end{array}\right.$

$$\nabla\cdot\vec{D}=\rho_{askea}$$

- $r<a$:

$$\oint_S \vec{D}\cdot d\vec{S} = Q_{askea} = 0 \Rightarrow \vec{D} = 0\,\hat{u}_r$$

• $a > r$:



$$\oint_S \vec{D}\, d\vec{s} = Q_{aske} = Q + \int_V \rho\, dV$$

$$\int_V \rho \cdot dv = \int_a^r -Q_E k^2 \cdot \frac{e^{-kr}}{\cancel{r}} \cdot 4\pi r^2 dr =$$

$$= +Q_E \cdot k^2 \cdot 4\pi \int_a^r -r \cdot e^{-kr} dr = (*)$$

Integral mugagabea ebatziko dugu:

$$\int -r e^{-kr} dr = \frac{r}{k} e^{-kr} - \int \frac{e^{-kr}}{k} dr = \frac{r}{k} e^{-kr} + \frac{e^{-kr}}{k^2} + C =$$

$u = r$ $\quad -e^{-kr} dr = dv$

$du = dr$ $\quad \frac{e^{-kr}}{k} = v$

$$= \frac{1}{k}\left(r + \frac{1}{k}\right) e^{-kr} + C$$

$$(*) = 4\pi Q_E k^2 \left[\frac{1}{k}\left(r+\frac{1}{k}\right) e^{-kr}\right]_a^r = 4\pi Q_E\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]$$

$$\oint_S \vec{D} \cdot d\vec{s} = Q_{aske} \Rightarrow D \cdot 4\pi r^2 = Q + 4\pi Q_E\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]$$

$$\vec{D} = \frac{Q + 4\pi Q_E\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]}{4\pi r^2}\hat{u}_r$$

$$\vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{Q + 4\pi Q_E\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]}{4\pi r^2}\hat{u}_r, & r > a \\ 0\,\hat{u}_r, & r < a \end{cases}$$

Dielektrikoa linealtzat hartuz, $\vec{D} = \epsilon \vec{E}$ erabiliko dugu $\vec{E}$ kalkulatzeko $\Rightarrow$ $\vec{E} = \vec{D}/\epsilon$

$$\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{Q + 4\pi Q_E[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}]}{4\pi\varepsilon r^2}\,\hat{u}_r, & r>a \\ 0\,\hat{u}_r, & \text{bestela} \end{cases}$$

$\vec{E}$ izanda kalkula dezakegu ϕ:

$$\int_{\phi(\infty)}^{\phi(a)} d\phi = -\int_{\infty}^{a} \frac{Q + 4\pi Q_E[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}]}{4\pi\varepsilon r^2}\,dr$$

Banandu egingo dugu:

- $$\int_{\infty}^{a} \frac{-Q}{4\pi\varepsilon r^2}\,dr = \frac{-Q}{4\pi\varepsilon}\left[-\frac{1}{r}\right]_{\infty}^{a} = \frac{Q}{4\pi\varepsilon a}$$

- $$\int_{\infty}^{a} \frac{\cancel{4\pi} Q_E(ka+1)e^{-ka}}{\cancel{4\pi}\varepsilon r^2}\,dr = \frac{Q_E(ka+1)e^{-ka}}{\varepsilon}\left[-\frac{1}{r}\right]_{\infty}^{a} = -\frac{Q_E(ka+1)e^{-ka}}{\varepsilon a}$$

- $$\int_{\infty}^{a} \frac{-\cancel{4\pi} Q_E(kr+1)e^{-kr}}{\cancel{4\pi}\varepsilon r^2}\,dr = -\frac{Q_E}{\varepsilon}\int_{\infty}^{a} \frac{(kr+1)e^{-kr}}{r^2}\,dr =$$

$$= -\frac{Q_E}{\varepsilon}\int_{\infty}^{a} \frac{d}{dr}\left(-\frac{e^{-kr}}{r}\right)dr = +\frac{Q_E}{\varepsilon}\left[+\frac{e^{-kr}}{r}\right]_{\infty}^{a} = \frac{Q_E e^{-ka}}{\varepsilon a}$$

$$\phi(a) - \phi(\infty) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon a} + \frac{Q_E}{\varepsilon a}e^{-ka} - \frac{Q_E(ka+1)e^{-ka}}{\varepsilon a}$$

$$\phi(a) = \frac{Q}{4\pi\varepsilon a} - \frac{Q_E k}{\varepsilon}e^{-ka}$$

Polarizazio kargak kalkulatzeko $\vec{P}$ erabiliko dugu:

$$\vec{D} = \varepsilon_0\vec{E} + \vec{P} \Rightarrow \vec{P} = \vec{D} - \varepsilon_0\vec{E} \Rightarrow (\vec{P}(\vec{r}) = P(r)\,\hat{u}_r)$$

$$\vec{P}(\vec{r}) = \begin{cases} (\varepsilon-\varepsilon_0)\dfrac{Q + 4\pi Q_\varepsilon\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]}{4\pi\varepsilon r^2}\,\hat{u}_r, & r>a \\ 0\,\hat{u}_r, & r<a \end{cases}$$

Polarizazio kargak kalkulatzeko: $\rho_P = -\nabla\cdot\vec{P}$, $\sigma_P = \vec{n}\cdot\vec{P}$

$$\rho_P = -\nabla\cdot\vec{P} = -\frac{1}{r^2}\frac{\partial}{\partial r}\left(\cancel{r^2}\cdot(\varepsilon-\varepsilon_0)\frac{Q+4\pi Q_\varepsilon\left[(kr+1)e^{-kr} - (ka+1)e^{-ka}\right]}{4\pi\varepsilon \cancel{r^2}}\right) =$$

$$= -\frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)}{r^2}\frac{\partial}{\partial r}\left(\frac{Q_\varepsilon\left[(kr+1)e^{-kr}\right]}{\varepsilon}\right) = -\frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q_\varepsilon}{\varepsilon r^2}\left(k e^{-kr} - k(kr+1)e^{-kr}\right) =$$

$$= -\frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q_\varepsilon}{\varepsilon r^2}k e^{-kr}(1-kr-1) = \frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q_\varepsilon k}{\varepsilon r^2}e^{-kr}\cdot k\cancel{r} = \frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q_\varepsilon k^2}{\varepsilon r}e^{-kr}$$



$$\sigma_{Pa} = \vec{n}_a\cdot\vec{P}(a) = -(\varepsilon-\varepsilon_0)\frac{Q+4\pi Q_\varepsilon\left[\cancel{(ka+1)e^{-ka} - (ka+1)e^{-ka}}\right]}{4\pi\varepsilon a^2} =$$

$\vec{n}_a = -\hat{u}_r$

$$= -\frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q}{4\pi\varepsilon a^2}$$

$$\boxed{\rho_P = \frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q_\varepsilon k^2}{\varepsilon r}e^{-kr}} \qquad \boxed{\sigma_{Pa} = -\frac{(\varepsilon-\varepsilon_0)Q}{4\pi\varepsilon a^2}}$$

3. ARIKETA

R_1 eta R_2 erradioko esfera eroale zentrukideen artean korronte geldikor bat dario. Esferen arteko potentzial diferentzia V dugu, eta esferen arteko espazioan σ eroankortasuneko eroalea dago. Kalkula ezazu sistemaren erresistentzia.



Potentzial diferentzia bi geruza esferikoen artean dagoenez, korrontea erradialki hedatuko da.

Jarraitutasunaren ekuazioa: $\frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla \cdot \vec{j} = 0$

Korrontea geldikorra: $\frac{\partial \rho}{\partial t} = 0 \Rightarrow \nabla \cdot \vec{j} = 0$

$$\int_V \nabla \cdot \vec{j}\, dV = \int_{\partial V} \vec{j} \cdot d\vec{S} = \int_{S_1} \vec{j}(r)\, d\vec{S} + \int_{S_2} \vec{j}(r)\, d\vec{S} = -I_1 + I_2 = 0 \Rightarrow I_1 = I_2$$

Intentsitate berdina gainazal guztietan

$$I = \int_S \vec{j}(r) \cdot d\vec{S} = j(r) \int_S dS = j(r)\, 4\pi r^2 \Rightarrow j(r) = \frac{I}{4\pi r^2}$$

Ohm-en legea: $\vec{j}(r) = \sigma \vec{E}(r) \rightarrow \vec{E}(r) = \vec{j}(r)/\sigma$

$$V = \int_{R_1}^{R_2} \vec{E}(r)\, d\vec{r} = \int_{R_1}^{R_2} \frac{I}{4\pi\sigma r^2}\, dr = \frac{I}{4\pi\sigma}\left[-\frac{1}{r}\right]_{R_1}^{R_2} = \frac{I}{4\pi\sigma}\left(\frac{1}{R_1} - \frac{1}{R_2}\right) = \frac{(R_2 - R_1) I}{4\pi\sigma R_1 R_2}$$

Azkenik, $V = I \cdot R \Rightarrow R = \frac{V}{I}$

Beraz, $\frac{V}{I} = \frac{(R_2 - R_1) I}{4\pi\sigma R_1 R_2} \rightarrow \boxed{R = \frac{I(R_2 - R_1)}{4\pi\sigma R_1 R_2}}$

4. ARIKETA

Biz a erradioko zilindro infinitua, μ_1 iragazkortasun magnetikoa. Zilindro hau I intentsitateak zeharkatzen du ardatzaren norabidean, uniformeki banandua. I intentsitate hau kanpoko geruza zilindriko zentrukide batetik itzultzen da. Geruza zilindriko honen barne erradioa b eta kanpo erradioa c dira. Geruza zilindrikoaren iragazkortasuna μ_2 da. Geruza honetan ere uniformea da korrontearen banaketa. Kalkula ezazu luzera unitateko energia magnetikoa.



Lehenik eta behin, simetria zilindrikoa dugunez eta intentsitatea z norabidean doanez, badakigu:

$$\vec{H}(\vec{r}) = H(r)\,\hat{u}_\varphi \qquad \vec{B}(\vec{r}) = B(r)\,\hat{u}_\varphi$$

Hasteko, $\vec{H}$ kalkulatuko dugu.

$$\nabla \wedge \vec{H} = \vec{J}_{askea} \Rightarrow \oint_C \vec{H}\cdot d\vec{l} = I_{ing}$$

• $r<a$:



I_{ing} kalkulatzeko, $\vec{J}$ kalkulatuko dugu:

$$I = \vec{J}\cdot\vec{A} = J\cdot\pi a^2 \rightarrow \vec{J} = \frac{I}{\pi a^2}\hat{u}_z$$

$$I_{ing} = \int_S \vec{J}\cdot d\vec{s} = \frac{I}{\pi a^2}\int_S ds = \frac{I}{\pi a^2}\,\pi r^2 \Rightarrow I_{ing} = I\frac{r^2}{a^2}$$

Orduan: $\oint_C \vec{H}\cdot d\vec{l} = H\int_C dl = H\cdot 2\pi \cancel{r} = I\frac{r^{\cancel{2}}}{a^2} \Rightarrow H(r) = \frac{I}{2\pi a^2}r$

• $a<r<b$:

$$\oint \vec{H}\cdot d\vec{l} = I_{ing} = I \Rightarrow H(r) = \frac{I}{2\pi r}$$

• $b<r<c$:



Kanpoko geruzaren $\vec{J}$ kalkulatuko dugu:

$$I = \vec{J}\cdot\vec{A} = J\,\pi(c^2-b^2) \Rightarrow \vec{J} = \frac{I}{\pi(c^2-b^2)}(-\hat{u}_z)$$

Beraz, $I_{ing} = I + \int_S \vec{J}\cdot d\vec{s} = I - \frac{I}{\cancel{\pi}(c^2-b^2)}\cancel{\pi}(r^2-b^2) = I\,\frac{c^2-r^2}{c^2-b^2}$

$$\oint_C \vec{B}\cdot d\vec{l} = H\cdot 2\pi r = I\,\frac{c^2-r^2}{c^2-b^2} \rightarrow H(r) = \frac{(c^2-r^2)\,I}{2\pi r(c^2-b^2)}$$

• $c > r$:

$$\oint \vec{H}\cdot d\vec{l} = I_{ing} = I - I = 0 \Rightarrow H(r) = 0$$

Beraz, dena laburtuz:

$$\boxed{\vec{H}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{Ir}{2\pi a^2}\,\vec{u}_\varphi, & r<a \\ \dfrac{I}{2\pi r}\,\vec{u}_\varphi, & a<r<b \\ \dfrac{(c^2-r^2)I}{2\pi r(c^2-b^2)}\,\vec{u}_\varphi, & b<r<c \\ 0\,\vec{u}_\varphi, & \text{bestela} \end{cases}}$$

Orain, materialak emandakoak hartuz, $\vec{B}$ kalkulatuko dugu:

$\vec{B}(\vec{r}) = \mu(r)\cdot\vec{H}(\vec{r})$, beraz

$$\hookrightarrow \boxed{\vec{B}(\vec{r}) = \begin{cases} \dfrac{\mu_1 I r}{2\pi a^2}\,\vec{u}_\varphi, & r<a \\ \dfrac{\mu_0 I}{2\pi r}\,\vec{u}_\varphi, & a<r<b \\ \dfrac{\mu_2(c^2-r^2)I}{2\pi r(c^2-b^2)}\,\vec{u}_\varphi, & b<r<c \\ 0\,\vec{u}_\varphi, & \text{bestela} \end{cases}}$$

Azkenik, energia magnetikoa kalkulatzeko, ondorengo adierazpena erabiliko dugu.

$$W = \frac{1}{2}\int_v \vec{H}\cdot\vec{B}\,dv = \frac{1}{\cancel{2}}\int_0^a \mu_1\cdot\frac{I^2r^2}{4\pi^2a^4}\,l\,\cancel{2}\cancel{\pi} r\,dr + \frac{1}{\cancel{2}}\int_a^b \mu_0\,\frac{I^2}{4\pi^{\cancel{2}}r^{\cancel{2}}}\,\cancel{2}\cancel{\pi}\cancel{r}\,dr\,l\,+$$

$$+\frac{1}{\cancel{2}}\int_b^c \mu_2\,\frac{(c^2-r^2)^2I^2}{4\pi^{\cancel{2}}r^{\cancel{2}}(c^2-b^2)}\,\cancel{2}\cancel{\pi}\cancel{r}\,dr\cdot l =$$

$$= \frac{\mu_1 I^2 \ell}{4\pi a^4}\int_0^a r^3 dr + \frac{\mu_0 I^2 \ell}{4\pi}\int_a^b \frac{1}{r} dr + \frac{\mu_2 I^2 \ell}{4\pi (c^2-b^2)^2}\int_b^c \left(\frac{c^4}{r} - 2c^2 r + r^3\right) dr =$$

$$= \frac{\mu_1 I^2 \ell}{16\pi} + \frac{\mu_0 \ell I^2}{4\pi}\ln\left(\frac{b}{a}\right) + \frac{\mu_2 I^2 \ell}{4\pi(c^2-b^2)^2}\left[c^4 \ln\left(\frac{c}{b}\right) - c^2(c^2-b^2) + \frac{c^4}{4} - \frac{b^4}{4}\right] =$$

$$= \frac{\mu_1 I^2 \ell}{16\pi} + \frac{\mu_0 \ell I^2}{4\pi}\ln\left(\frac{b}{a}\right) + \frac{\mu_2 I^2 \ell}{4\pi(c^2-b^2)^2}\left[c^4 \ln\left(\frac{c}{b}\right) - \frac{3}{4}c^4 + c^2 b^2 - \frac{b^4}{4}\right]$$

Condotta: $\boxed{\frac{W}{\ell} = \frac{\mu_1 I^2}{16\pi} + \frac{\mu_0 I^2}{4\pi}\ln\left(\frac{b}{a}\right) + \frac{\mu_2 I^2}{4\pi(c^2-b^2)^2}\left[c^4 \ln\left(\frac{c}{b}\right) - \frac{3}{4}c^4 + c^2 b^2 - \frac{b^4}{4}\right]}$

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Saila
Dpto. de Física Teórica e Historia de la Ciencia

Elektromagnetismoa I — 2017ko Azaroa

1. R erradioko esfera eroale bat hutsean isolatua eta kargatua da, Q kargarekin.

- Kalkula ezazu sisteman gordetako energia.
- Esferaren karga aldatu gabe, geruza esferiko dielektrikoz inguratzen dugu. Bere barne erradioa R eta kanpokoa $R+a$ dira, eta ϵ permitibitatekoa da. Kalkula ezazu, sistema egonkortu ondoren, sistema berrian gordetako energia. Aurrekoarekiko aldaketarik agertuz gero, azaldu aldaketaren jatorria.
- Lehen aipatutako hasierako egoera izan beharrean esferaren potentziala kanpotik V_0 balioan finkatuko dugu. Zeintzuk dira sistemaren energiak dielektrikorik gabe eta geruza dielektrikoarekin?

2. R erradioko esfera dieletrikoak $\mathbf{P}$ polarizazio konstantea aurkezten du, Z ardatzaren norabidean. Kalkula ezazu esferaren zentruko potentziala, eta potentziala eta eremu elektrostatikoa X ardatzeko $L \gg R$ distantziako puntu batean.



1. ARIKETA

R erradioko esfera eroale bat hutsean isolatuta eta kargatuta da, Q kargarekin.

· Kalkulatu sistemaren energia.

Simetria esferikoa dugunez: $\begin{cases} \vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r \\ \vec{D}(\vec{r}) = D(r)\,\hat{u}_r \end{cases}$

Lehenengo $\vec{D}$ kalkulatuko dugu: $\nabla \cdot \vec{D} = \rho_{aske}$

$$\oint_S \vec{D} \cdot d\vec{s} = Q_{aske}$$

· $0<r<R$:

Esfera eroalea denez, barruan ez da kargarik egongo.

$Q_{aske} = 0 \Rightarrow D(r) = 0$

· $r>R$:



Esferatik kanpo $\Rightarrow$ $Q_{aske} = Q$;

$$\int_S \vec{D}\, d\vec{s} = Q \Rightarrow D \cdot 4\pi r^2 = Q \Rightarrow D(r) = \frac{Q}{4\pi r^2}$$

Beraz: $$\vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} 0\,\hat{u}_r, & r<R \\ \dfrac{Q}{4\pi r^2}\,\hat{u}_r, & r>R \end{cases}$$

Orain, $\vec{E}$ kalkulatzeko, bi medioak material eroalea eta hutsa direnez, badakigu $\vec{D} = \varepsilon_0 \vec{E} \Rightarrow \vec{E} = \vec{D}/\varepsilon_0$

Beraz, $$\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} 0\,\hat{u}_r, & r<R \\ \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\,\hat{u}_r, & r>R \end{cases}$$

$$U = \int_V \frac{1}{2}\vec{D}\cdot\vec{E}\,dV = \frac{1}{2}\int_0^R 0\,dV + \frac{1}{2}\int_R^{\infty} \frac{Q}{4\pi r^2}\hat{u}_r \cdot \frac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\hat{u}_r\, 4\pi r^2\,dr =$$

$$= \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_R^{\infty} = \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon_0 R}$$

- Esferaren karga aldatu gabe, geruza esferiko dielektrikoz inguratzen dugu sistema. Barne erradioa R eta kanpokoa $R+a$ dira, eta ε permitibitatekoa da. Kalkulatu sistema egonkortu ondoreneko energia. Aurrekoarekiko aldaketarik agertuz gero, azaldu aldaketaren jatorria.

Aurreko atalatik kalkulatutako D erabiliko dugu.

Orain, $E(r) = D(r)/\varepsilon(r)$, non $\varepsilon(r) = \begin{cases} \varepsilon, & R<r<R+a \\ \varepsilon_0, & \text{bestela} \end{cases}$

Beraz, $\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} 0\cdot\hat{u}_r, & 0<R \\ \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon r^2}\hat{u}_r, & R<r<R+a \\ \dfrac{Q}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\hat{u}_r, & r>R+a \end{cases}$

$$U = \frac{1}{2}\int_V \vec{D}\cdot\vec{E}\,dV = \frac{1}{2}\int_R^{R+a} \frac{Q}{4\pi\varepsilon r^2}\hat{u}_r \cdot \frac{Q}{\cancel{4\pi\varepsilon r^2}}\hat{u}_r\, 4\pi r^2\,dr + \frac{1}{2}\int_{R+a}^{\infty} \frac{Q}{4\pi r^2}\hat{u}_r \cdot \frac{Q}{4\pi r^2\varepsilon_0}\hat{u}_r\, 4\pi r^2\,dr =$$

$$= \frac{1}{2}\frac{Q^2}{4\pi\varepsilon}\left[-\frac{1}{r}\right]_R^{R+a} + \frac{1}{2}\frac{Q^2}{4\pi\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_{R+a}^{\infty} = \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon}\left(\frac{1}{R} - \frac{1}{R+a}\right) + \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon_0 (R+a)} =$$

$$= \frac{Q^2 a}{8\pi\varepsilon R(R+a)} + \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon_0 (R+a)}$$

• Lehen aipatutako egoera izan beharrean esferaren potentziala V_0 balioan finkatu dugu. Zeintzuk dira sistemaren energiak dielektrikoarekin eta dielektrikorik gabe?

Badakigu kargatutako esfera batek $r \geq R$ eremuan sortzen duen potentziala bere zentruan kokatutako karga berdineko karga puntual batek sortuko lukeenaren berdina da.

Beraz: $V(r) = \dfrac{Q'}{4\pi\varepsilon_0 r} \rightarrow V(r) = V_0 = \dfrac{Q'}{4\pi\varepsilon_0 R} \Rightarrow \underline{Q' = 4\pi\varepsilon_0 V_0 R}$

Beraz, lehenengo egoeran: $U = \dfrac{\cancel{16}\pi^{\cancel{2}}\varepsilon_0^{\cancel{2}} V_0^2 R^{\cancel{2}}}{\cancel{8}\cancel{\pi}\cancel{\varepsilon_0}\cancel{R}} \Rightarrow \boxed{U = 2\pi\varepsilon_0 R V_0^2}$

Geruza dielektrikoaren kasuan, Q'' kalkulatzeko $\vec{E}$ behar dugu

Simetria esferikoarengatik, badakigu $\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} 0 \, \vec{u_r}, & r < R \\ \dfrac{Q''}{4\pi\varepsilon r^2}\vec{u_r}, & R < r < R+a \\ \dfrac{Q''}{4\pi\varepsilon_0 r^2}\vec{u_r}, & R+a < r \end{cases}$

Orain, geruzaren potentziala finkatuko dugu:

• $\underline{r > R+a}$:

$$\int_{\phi(\infty)}^{\phi(R+a)} d\phi = \int_{R+a}^{\infty} \frac{Q''}{4\pi\varepsilon_0 r^2} dr = \frac{Q''}{4\pi\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_{R+a}^{\infty} = \frac{Q''}{4\pi\varepsilon_0 (R+a)}$$

$\phi(\infty) = 0$ hartuz $\Rightarrow \underline{\phi(R+a) = \dfrac{Q''}{4\pi\varepsilon_0 (R+a)}}$

• $\underline{R < r < R+a}$:

$$\int_{\phi(R+a)}^{\phi(R)} d\phi = \int_{R}^{R+a} \frac{Q''}{4\pi\varepsilon r^2} dr = \frac{Q''}{4\pi\varepsilon}\left[-\frac{1}{r}\right]_{R}^{R+a} = \frac{Q''}{4\pi\varepsilon}\left(\frac{1}{R} - \frac{1}{R+a}\right)$$

$$\Phi(R) = \frac{Q''}{4\pi\varepsilon_0 (R+a)} + \frac{a\,Q''}{4\pi\varepsilon (R+a) R} = V$$

$$\Rightarrow V = \frac{Q''}{4\pi (R+a)}\left(\frac{1}{\varepsilon_0} + \frac{a}{\varepsilon R}\right) = \frac{Q''(\varepsilon R + \varepsilon_0 a)}{4\pi\varepsilon_0 \varepsilon (R+a) R}$$

Ondorioz, $$Q'' = \frac{4\pi\varepsilon_0 \varepsilon (R+a) R V}{\varepsilon R + \varepsilon_0 a}$$

Aurreko ataleko adierazpenetik adierazpena berreskuratu:

$$\boxed{U = \frac{a Q^2}{8\pi\varepsilon\, \varepsilon (R+a)} + \frac{Q^2}{8\pi\varepsilon_0 (R+a)} \quad \text{non} \quad Q = \frac{4\pi\varepsilon_0 \varepsilon (R+a) R V}{\varepsilon R + \varepsilon_0 a}}$$

2. ARIKETA

R erradioko esfera dielektrikoak $\vec{P}$ polarizazio konstantea aurkezten du, z ardatzaren norabidean. Kalkulatu ezazu esferaren zentruko potentziala, eta potentziala eta eremu elektrostatikoa X ardatzeko L>>R distantziako puntu batean.



$\vec{n} = \hat{u}_r$

r=0 puntuko potentziala kalkulatzeko, polarizazio kargak kalkulatu ditugu:

$$\rho_P = -\nabla\cdot\vec{P} = -\frac{\partial P}{\partial z} = 0$$

$$\sigma_P = \vec{P}\cdot\vec{n} = P\hat{u}_z\cdot(\sin\theta\cos\varphi\,\hat{u}_x + \sin\theta\sin\varphi\,\hat{u}_y + \cos\theta\,\hat{u}_z)$$

$$\sigma_P = P\cos\theta$$



Simetria esferikoarengatik:

Positiboki kargatutako esferaerdi hutsak V negatiboak sortutakoaren aurkakoa!!

$$V_+ + V_- = 0 \Rightarrow \boxed{V_0 = 0}$$

x=L>>R puntuko $\vec{E}$ eta V kalkulatzeko, hurbilketa dipolarra erabiliko dugu.

$$\vec{P} = \frac{d\vec{p}}{dV} \Rightarrow \vec{p} = \int_V \vec{P}\,dV = \int_0^R P\,\hat{u}_z\cdot 4\pi r^2 dr = \frac{4}{3}\pi R^3 P\,\hat{u}_z$$

Orain, dipolo elektriko batek sortutako $\vec{E}$ eta V kalkulatuko ditugu.

$$V(\vec{r}) = \frac{1}{4\pi\varepsilon_0}\cdot\frac{\vec{r}\cdot\vec{p}}{r^3} \Rightarrow \left.\begin{array}{l}\vec{r} = r\,\hat{u}_x\\ \vec{p} = p\,\hat{u}_z\end{array}\right\}\ \vec{r}\cdot\vec{p} = 0 \Rightarrow \boxed{V(x=L) = 0}$$

$$\vec{E}(x=L) = \frac{1}{4\pi\varepsilon_0}\left(\frac{3\,\cancel{\vec{r}\cdot\vec{p}}}{r^5}\vec{r} - \frac{1}{r^3}\vec{p}\right) = \frac{1}{4\pi\varepsilon_0}\cdot\frac{-4\pi R^3 P}{3\cdot L^3}\hat{u}_z = -\frac{PR^3}{3\varepsilon_0 L^3}\hat{u}_z$$

$$\boxed{\vec{E}(x=L) = \frac{-R^3 P}{3\varepsilon_0 L^3}\hat{u}_z}$$

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA

Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Saila
Dpto. de Física Teórica e Historia de la Ciencia

Elektromagnetismoa I 2017/18 kurtsoko azterketa



1. (3 puntu) R_1 erradioko esfera dielektriko batek $\mathbf{P} = Kr^2\mathbf{u}_r$ polarizazio konstantea darama. R_2 erradioraino $\rho = br$ karga dentsitateko geruza esferiko batek inguratzen du esfera. Lor itzazu

i) eremu elektrikoa eta desplazamendu elektrikoa espazioko alde guztietan;

ii) zentruko potentzial elektrikoa;

2. (3 puntu) a erradioko bi xafla eroale eta paralelo d distantziaz aldenduak dira. I korronte konstanteak kargatzen du kondentsadorea. Erabil ezazu Poyntingen bektorea ondokoa frogatzeko: denbora unitateko kondentsadorearen barruan sartzen den energia elektromagnetikoa VI dugu, non V xaflen arteko potentzial diferentzia den.

3. (3 puntu) R erradioko eta luzera infinituko solenoide batetik I intentsitatea dario. Solenoidearen bira dentsitatea n dugu. Solenoidearen barruan μ konstanteko diska magnetiko bat dago, a erradiokoa eta d altuerakoa ($d \ll a$). Diska eta solenoidea ardazkideak dira. Kalkula itzazu diskaren momentu magnetikoa eta bere imanazioa. Kalkula ezazu P puntuko eremu magnetiko osoa.



4. (Puntu 1) Kontsidera dezagun uhin gida ardazkide infinitua; hau da, a erradioko zilindro infinitu eroale bat eta b erradioko geruza zilindriko eroalea ardazkideak dira. Euren artean uhin elektromagnetika hedatzen da. Koordenatu zilindrikoetan uhinaren eremu elektrikoa dugu:

$$\mathbf{E} = \frac{E_0}{r}\cos(kz - \omega t)\mathbf{u}_r\,.$$

Kalkula itzazu $\mathbf{B}$ eremua eta $r = a$ gainazaleko karga dentsitatea. Iradokizuna: $\mathbf{B}$ kalkulatzeko, kontuan izan $\mathbf{B}$ eta $\mathbf{E}$ ortogonalak direla, eta $\nabla \cdot \mathbf{B} = 0$ beti betetzen dela.

1. ARIKETA

R_1 erradioko esfera dielektriko batek $\vec{P} = kr^2\hat{u}_r$ polarizazio konstantea darama. R_2 erradioraino $\rho = br$ karga-dentsitateko geruza esferiko batek inguratzen du esfera. Lor itzazu:

i) Eremu elektrikoa eta desplazamendu elektrikoa espazioko alde guztietan.



Lehenik eta behin:

R_1 esferan polarizazio karga egongo da, baina hau ez da karga askea izango!!

R_2 geruzarena aldiz, BAI izango dela karga askea!

• Lehenik eta behin, $\vec{D}$ kalkulatuko dugu:

$$\nabla \cdot \vec{D} = \rho_{askea} \Rightarrow \oint_S \vec{D} \cdot d\vec{s} = Q_{askea}$$

Lehenik eta behin, simetria esferikoa dugunez: $\begin{cases} \vec{D}(\vec{r}) = D(r)\,\hat{u}_r \\ \vec{E}(\vec{r}) = E(r)\,\hat{u}_r \end{cases}$

* S gainazalak esferarekin zentrukide diren r erradioko geruza esferikoak izango dira.

• $0 < r < R_1$:

Esan bezala, $Q_{aske} = 0 \Rightarrow \vec{D}(\vec{r}) = 0\,\hat{u}_r$

• $R_1 < r < R_2$:

Kasu honetan esfera barruan geratzen zaigun karga hartu behar dugu kontuan.

$$Q_{aske} = \int_{R_1}^{r} \rho(r)\, dV = \int_{R_1}^{r} b \cdot r\, 4\pi r^2 dr = 4\pi b \left[\frac{r^4}{4}\right]_{R_1}^{r} = \pi b\,(r^4 - R_1^4)$$

Beraz: $\oint_S \vec{D}\cdot d\vec{s} = Q_{aske} \Rightarrow D\cdot 4\cancel{\pi} r^2 = \cancel{\pi} b\,(r^4 - R_1^4)$

$$D(r) = \frac{b}{4}\,\frac{r^4 - R_1^4}{r^2}$$

- $r > R_2$:

Hemen inguratutako karga askea geruzak duen karga da.

$$Q_{aske} = \int_{R_1}^{R_2} \rho(r)\,dr = \ldots = \pi b\,(R_2^4 - R_1^4)$$

Beraz: $\oint_S \vec{D}\,d\vec{s} = Q_{aske} \Rightarrow D\cdot 4\cancel{\pi} r^2 = \cancel{\pi} b\,(R_2^4 - R_1^4) \Rightarrow D(r) = \frac{b}{4}\,\frac{R_2^4 - R_1^4}{r^2}$

Beraz, laburbilduz:

$$\boxed{\vec{D}(\vec{r}) = \begin{cases} 0\,\hat{u}_r, & r < R_1 \\ \frac{b}{4}\,\frac{r^4 - R_1^4}{r^2}\,\hat{u}_r, & R_1 < r < R_2 \\ \frac{b}{4}\,\frac{R_2^4 - R_1^4}{r^2}\,\hat{u}_r, & r > R_2 \end{cases}}$$

Orain, badakigunez, $\vec{D} = \epsilon_0 \vec{E} + \vec{P}$ dela, $\Rightarrow \vec{E} = \frac{\vec{D} - \vec{P}}{\epsilon_0}$

Polarizaturik soilik R_1 erradioko esfera dagoenez, eremua ezaguna dugu.

$$\boxed{\vec{E}(\vec{r}) = \begin{cases} -\frac{k}{\epsilon_0}\,r^2\,\hat{u}_r, & r < R_1 \\ \frac{b\,(r^4 - R_1^4)}{4\epsilon_0 r^2}\,\hat{u}_r, & R_1 < r < R_2 \\ \frac{b\,(R_2^4 - R_1^4)}{4\epsilon_0 r^2}\,\hat{u}_r, & r > R_1 \end{cases}}$$

ii) Zentruko potentzial elektrikoa.

Eremua ezaguna dugunez, hau integratzea nahikoa zaigu zentruko potentziala kalkulatzeko.

- $r > R_2$:

$$\int_{\Phi(\infty)}^{\Phi(R_2)} d\Phi = -\int_{\infty}^{R_2} \frac{b(R_2^4 - R_1^4)}{4\varepsilon_0 r^2}\, dr = \frac{b(R_2^4 - R_1^4)}{4\varepsilon_0}\left[\frac{1}{r}\right]_{\infty}^{R_2} = \frac{b(R_2^4 - R_1^4)}{4\varepsilon_0 R_2}$$

$\Phi(\infty) = 0$ hartu $\longrightarrow$ $\Phi(R_2) = \dfrac{b(R_2^4 - R_1^4)}{4\varepsilon_0 R_2}$

- $R_1 < r < R_2$:

$$\int_{\Phi(R_1)}^{\Phi(R_2)} d\Phi = -\int_{R_1}^{R_2} \frac{b(r^4 - R_1^4)}{4\varepsilon_0 r^2}\, dr = -\frac{b}{4\varepsilon_0}\int_{R_1}^{R_2} r^2\, dr + \frac{bR_1^4}{4\varepsilon_0}\int_{R_1}^{R_2} \frac{1}{r^2}\, dr =$$

$$= -\frac{b}{4\varepsilon_0}\left[\frac{r^3}{3}\right]_{R_1}^{R_2} + \frac{bR_1^4}{4\varepsilon_0}\left[-\frac{1}{r}\right]_{R_1}^{R_2} = -\frac{b}{12\varepsilon_0}(R_2^3 - R_1^3) + \frac{bR_1^4}{4\varepsilon_0}\left(\frac{1}{R_1} - \frac{1}{R_2}\right)$$

$$\Rightarrow \Phi(R_1) = \frac{b}{4\varepsilon_0}R_2^3 - \cancel{\frac{b}{4\varepsilon_0}\frac{R_1^4}{R_2}} + \frac{b}{12\varepsilon_0}R_2^3 - \frac{b}{12\varepsilon_0}R_1^3 + \cancel{\frac{bR_1^4}{4\varepsilon_0 R_2}} - \frac{bR_1^3}{4\varepsilon_0}$$

$$= \frac{bR_2^3}{3\varepsilon_0} - \frac{bR_1^3}{3\varepsilon_0}$$

- $0 < r < R_1$:

$$\int_{\Phi(R_1)}^{\Phi(0)} d\Phi = -\int_{R_1}^{0} -\frac{k}{\varepsilon_0} r^2\, dr = \frac{k}{\varepsilon_0}\left[\frac{r^3}{3}\right]_{R_1}^{0} = -\frac{kR_1^3}{3\varepsilon_0} = \Phi(0) - \Phi(R_1)$$

Eta, beraz: $\boxed{\Phi(0) = \dfrac{bR_2^3 - (k+b)R_1^3}{3\varepsilon_0}}$

2. ARIKETA

a erradioko bi xafla eroale eta paralelo d distantziaz aldenduta daude. I korronte konstanteak kargatzen du kondentsadorea. Erabili ezazu Poyntingen bektorea ondokoa frogatzeko: denbora unitateko kondentsadorean sartzen den energia elektromagnetikoa VI dugu, non V xaflen arteko potentzial diferentzia den.



Lehenengo, kondentsadorearen karga kalkulatuko dugu:

$$I = \frac{dq}{dt} \Rightarrow Q(t) = I\,t$$

Bestalde, bi xaflen artean, $\vec{E}(\vec{r}) = \frac{\sigma}{\epsilon_0}\hat{u}_z$

$\sigma = \frac{Q(t)}{S}$ hortaz, $\vec{E}(r,t) = \frac{I\,t}{\pi\epsilon_0 a^2}\hat{u}_z$

Ikus dezakegunez, $\vec{E}$ aldakorra da, ondorioz, $\vec{B}$ bat induzituko du.

$\vec{E}(r,t) = E(r,t)\,\hat{u}_z$ denez, badakigu $\vec{B}(r) = B(r)\,\hat{u}_\varphi$ motakoa dela.

Maxwellen ekuazioa: $\nabla\wedge\vec{B} =$

$$\int_S (\nabla\wedge\vec{B})\, d\vec{s} = \int_S \mu_0\epsilon_0 \frac{\partial \vec{E}}{\partial t}\, d\vec{s} \underset{\text{Stokesen teorema}}{\Longleftrightarrow} \int_{\partial S}\vec{B}\cdot d\vec{l} = \int_S \mu_0\epsilon_0\frac{\partial\vec{E}}{\partial t}\, d\vec{s}$$

$$B(r)\, 2\pi \cancel{r} = \mu_0 \frac{I}{\cancel{\pi} a^2}\cdot \cancel{\pi} r^{2} \Rightarrow \vec{B}(r) = \frac{\mu_0 I}{2\pi a^2}\, r\, \hat{u}_\varphi$$

Zilindrora sartzen den energia kalkulatzea Poynting bektorearen fluxua kondentsadorearen mugan zehar kalkulatzea da.

$$\vec{S} = \frac{1}{\mu_0}\vec{E}\wedge\vec{B} = \frac{1}{\mu_0}\frac{I\,t}{\pi\epsilon_0 a^2}\hat{u}_z \wedge \frac{\mu_0 I}{2\pi a^2}\, r\, \hat{u}_\varphi$$

$$\vec{S} = -\frac{I^2 t r}{2\pi^2 a^4 \epsilon_0}\hat{u}_r$$

Esan bezala, fluxua kondentsadorearen mugan:



$$\Phi_S = \int_A \vec{S}\cdot d\vec{A} = -\frac{I^2 t}{\epsilon_0 \cancel{2}\pi^{\cancel{2}} a^3} \cdot \cancel{2\pi} a \cdot d = -\frac{I^2 t d}{\pi a^2 \epsilon_0}$$

Gainazala kanporantz definitu dugunez, $\Phi_S < 0$ izateak energia sartu egiten dela adierazten digu

Frogatu behar dugu hori $V\cdot I$-ren berdina dela:

$\vec{E} = \frac{I t}{\pi \epsilon_0 a^2}\hat{u}_z$ izanik, badakigu $V = \frac{I t d}{\pi a^2 \epsilon_0}$.

Hortaz, $I\cdot V = \frac{I^2 t d}{\pi \epsilon_0 a^2}$, eta, beraz, $\boxed{-\Phi_S = V\cdot I}$

3. ARIKETA

R erradioko eta luzera infinituko solenoide batetik I intentsitatea doa. Solenoidearen bira dentsitatea n dugu. Solenoidearen barruan μ konstanteko diska magnetikoa dago, a erradiokoa eta d altuerakoa ($d \ll a$). Diska eta solenoidea ardazkideak dira. Kalkulatu diskaren momentu magnetikoa eta imanazioa. Kalkulatu P puntuko eremu magnetiko osoa.



Lehenengo $\vec H$ kalkulatuko dugu solenoidearen barruan.

Badakigu solenoidearen kanpoan $B=0$ dela eta barruan, intentsitatearen noranzkoarengatik, $\underline{\vec B = B\hat u_z} \Rightarrow \vec H = H\hat u_z$

$\vec H$ kalkulatzeko: $\nabla \wedge \vec H = \vec J_{askea} \Rightarrow \oint_C \vec H \cdot d\vec l = I_{ing}$

$$\left.\begin{array}{l}\oint_C \vec H\, d\vec l = \int_l H\hat u_z\, dl\, \hat u_z = H\cdot l \\ I_{ing} = n\cdot l I\end{array}\right\} \quad \underline{\vec H = nI\hat u_z}$$

Orain, diskoa material lineal bat hartuz: $\vec B = \begin{cases} \mu\, nI\hat u_z, & \text{diskoan} \\ \mu_0 nI\hat u_z, & \text{bestela}\end{cases}$

Diskoaren imanazioa kalkulatzeko:

$$\vec H = \frac{\vec B}{\mu_0} - \vec M \Rightarrow \vec M = \frac{\vec B}{\mu_0} - \vec H \Rightarrow (\vec M = M\hat u_z)$$

$$M = \frac{\mu}{\mu_0} nI - nI = \frac{\mu-\mu_0}{\mu_0} nI \Rightarrow \boxed{\vec M = \frac{\mu-\mu_0}{\mu_0} n I \hat u_z}$$

$$\vec M = \frac{d\vec m}{dV} \Rightarrow \int d\vec m = \vec m = \int_V \vec M\, dV = \frac{\mu-\mu_0}{\mu_0} nI \pi a^2 d\, \hat u_z$$

$(\vec m = m\hat u_z)$

$$\boxed{\vec m = \frac{\mu-\mu_0}{\mu_0} nI\pi a^2 d\,\hat u_z}$$

Orain, P puntuko eremu magnetikoa ($\vec{B}$) kalkulatzeko, gainezarmen printzipioa aplikatuko dugu.

$$\vec{B}(P) = \vec{B}_{sole}(P) + \vec{B}_{disk}(P)$$

- $\vec{B}_s(P)$ ezagutzen dugu $\Rightarrow$ $\underline{\vec{B}_s(P) = \mu_0 n I \hat{u}_z}$

- $\vec{B}_d(P)$ kalkulatzeko, hurbilketa dipolarra egingo dugu:

  Hau da, $L >> a, d$ kontsideratuz, $\vec{m}$ duen diskak sortutako eremu magnetikoa $\vec{m}$-ko dipolo magnetiko batek sortuko lukeen eremuaren berdina izango da.

$$\vec{B}(\vec{r}) = \frac{\mu_0}{4\pi}\left(\frac{3\,\vec{r}\cdot\vec{m}}{r^5}\vec{r} - \frac{\vec{m}}{r^3}\right) = \frac{\mu_0}{4\pi}\left(\frac{3\,L\hat{u}_z\cdot\chi_m n I a^2\pi d\hat{u}_z}{L^5}L\hat{u}_z - \frac{\chi_m n I a^2\pi d}{L^3}\hat{u}_z\right) =$$

$$= \frac{\cancel{\mu_0}}{2\cancel{\pi}}\cdot\frac{\mu-\mu_0}{\cancel{\mu_0}}\,\frac{n I \cancel{\pi} a^2 d\,\hat{u}_z}{L^3} \Rightarrow \underline{\vec{B}_s(P) = \frac{\mu-\mu_0}{2L^3}\,n I d a^2\,\hat{u}_z}$$

Beraz, $\boxed{\vec{B}(P) = \left(\mu_0 + \frac{\mu-\mu_0}{2L^3}da^2\right)n I \hat{u}_z}$

4. ARIKETA

Kontsidera dezagun uhin gida ardazkide infinitua; hau da, a erradioko zilindro eroale infinitu bat eta b erradioko geruza zilindriko eroalea ardazkideak dira. Euren artean uhin elektromagnetikoa hedatzen da. Koordenatu zilindrikoetan eremu elektrikoa ondorengoa dugu:

$$\vec{E} = \frac{E_0}{r}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_r$$

Kalkula itzazu $\vec{B}$ eremua eta $r=a$ gainazaleko karga dentsitatea.

Uhina z^+ norabidean hedatzen denez, $\vec{B}(r) = B(r)\,\hat{u}_\varphi$ izango da.

Maxwellen ekuazioa: $\nabla\wedge\vec{E} = -\dfrac{\partial\vec{B}}{\partial t}$

$$\cdot\ \nabla\wedge\vec{E} = \frac{\partial E_r}{\partial z}\hat{u}_\varphi = -\frac{E_0}{r}k\sin(kz-\omega t)\,\hat{u}_\varphi$$

$$\cdot\ \frac{\partial\vec{B}}{\partial t} = \frac{E_0}{r}k\sin(kz-\omega t)\,\hat{u}_\varphi$$

$$\rightarrow\ \vec{B} = \int\frac{E_0}{r}k\sin(kz-\omega t)\,dt\,\hat{u}_\varphi = \frac{E_0}{r}\frac{k}{\omega}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_\varphi$$

$$\frac{k}{\omega} = \frac{2\pi/\lambda}{2\pi f} = \frac{1}{\lambda f} = \frac{1}{c}\ \text{(uhin elektromagnetikoak)}$$

Beraz, $\boxed{\vec{B} = \dfrac{E_0}{c\,r}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_\varphi}$

σ kalkulatzeko, $\vec{E}$-ren mugalde baldintza aplikatuko dugu:



$r<a$ denean, eroalea denez, $\vec{E}(1) = 0\,\hat{u}_r$

$$\hat{n}\,(\vec{E}_2 - \vec{E}_1) = \frac{\sigma}{\varepsilon_0}$$

$$\hat{u}_r\left[\frac{E_0}{a}\cos(kz-\omega t)\,\hat{u}_r - 0\,\hat{u}_r\right] = \frac{\sigma}{\varepsilon_0}$$

Beraz, $\boxed{\sigma = \dfrac{\varepsilon_0 E_0}{a}\cos(kz-\omega t)}$